



**E**

Euskeraren Erri Akademia / Academia Popular de la Lengua Vasca  
L'Academie Populaire de la Langue Basque

# Euskerazaintza

LXXII Zenbakia • 2013. urtea-2

***Euskerazaintza eta  
"Euskera Batua"***

# Euskerazaintza

## **Gure irakurleari:**

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dute-  
nentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu  
zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta  
gure erantzuna au da: “Len”,  
oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmo-  
rik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo  
ona kontuan artu eta emaitza emten digutenak  
“laguntzaille” taldera sartuko ditugula esaten da  
gendun.

**Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta  
gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30  
euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure  
kontuen zanbakietan.**

**Gure kontuen zanbakiak onek dira:**

**BBVA: 0182-1296-00-0201538669**

**KUTXA: 2101-0200-46-0006681589**

**EUSKERAZAINTZA**

Euskeraren Erri-Akademia

Colón de Larreategi 14, 2<sup>a</sup> eskuma

48001 - BILBAO

e-mail: [aeuskerazaintza@gmail.com](mailto:aeuskerazaintza@gmail.com)

[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)

Z. N. A. / C. I. F. G 20/127. 759

Eusko Jaurlearitzaren Elkarte Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena

(BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)

I.S.B.N. : 1132- 1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Diseinua eta inprimaketa: **IBEGRAFIK**  
[www.ibegrafik.com](http://www.ibegrafik.com)

Laguntzaille



**Bizkaiko Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Bizkaia**  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura

<i>Atarikoa</i> .....	6
-----------------------	---

## Euskerazaintza eta “Euskera Batua”

<i>1. Atala</i> .....	11
<i>Euskeraren batasuna eta Euskal sena</i> .....	11
<i>1.1 Atala</i> .....	14
<i>1.1.1. Goaz batuaren bidean izandako batzuk aipatzera. Istori apur bat egiñez.</i> .....	14
<i>1.2 Atala Euskerazaintzaren liburu gorria</i> .....	17
<i>1968-1998</i> .....	17
<i>1.2.1. Euskaltzaindia, Arantzazu eta Bergara’ko batzarrak</i> .....	17
<i>1.2.2. Euskerazaintzaren sorrera</i> .....	18
<i>1.2.3. Euskal Sena</i> .....	18
<i>1.2.4. Euskeraren batasuna eta Euskalkiak</i> .....	18
<i>1.2.5. Euskeraren batasuna eta Bizkaiera</i> .....	18
<i>1.2.6. Aipamen berezi batzuk</i> .....	19
<i>1.2.7. Andik eta emendik</i> .....	19
<i>1.2.8. Iritziz eta ondorio batzuk</i> .....	21
<i>3. Atala</i> .....	22
<i>Euskal Sena</i> .....	22
<i>3. 1.</i> .....	22
<i>3. 2 . Atala. EUSKAL SENA (JARRAIPENA)</i> .....	26
<i>3.3. Euskal Sena Geiegizkoak eta okerrak:</i>	
<i>onoko auekin:</i> .....	29
<i>3.4. Atala. Euskal Sena</i> .....	30
<i>Zergatizkoen edo kausalen esaldiei buruz:</i> .....	30
<i>3.5. Atala. Euskal Sena</i> .....	31
<i>4. Atala</i> .....	35
<i>Ondorio gisa</i> .....	35
<i>Geigarriak</i> .....	37
<i>Euskerazaintza. Euskeraren Erri Akademia</i> .....	37
<i>2. Akatsak eta Erderakadak. Jexux Gaztañagak jasokoetatik (Euskerazaintzako Idazkari izan zen. G.B.)</i> .....	38
<i>2. Geigarria. Denbora epaille</i> .....	39
<i>3. Geigarria</i> .....	40

<i>Bere bizitza eta lanak.</i> .....	42
<i>Bere biografiaren, laburpentxo bat azalduko dugu.</i> .....	42
<i>Arremanak:</i> .....	43
<i>Euskerazko erakundeetan partaide:</i> .....	43
<i>Bere lanak eta jarduerak. Aipamen geiago:</i> .....	43
<i>4. Jakingarriak.</i> .....	43
<i>Liburu batzuren aipamena:</i> .....	43
<i>On Manuel Lekuona</i> .....	44
<i>Azken oarra:</i> .....	45
<i>On Manuel Lekuona-ren eta berak sortutako Kardaberaz</i> <i>Jakintza Bazkunaren bidetik, onoko auek sortu zuten</i> <i>Euskerazaintza- Euskeraren Erri Akademia</i> .....	47
<i>Aitorpena. Agur eta oore! Omenaldia</i> .....	47

## **Eusko Ikaskuntzaren V. Kongresuko kronika**

<i>Eusko-Erri-Ertia</i> .....	49
-------------------------------	----

## **Euskalerriko oitura ta sineskeritxu bat edo beste.**

<i>I. Euskaldunak</i> .....	56
<i>II.</i> .....	60
<i>III.</i> .....	62
<i>IV.</i> .....	62
<i>V.</i> .....	62
<i>VI.</i> .....	63
<i>VII.</i> .....	63
<i>VIII.</i> .....	65
<i>IX.</i> .....	66
<i>EZ DUT ERREZATUKO ERDERAZ</i> .....	69

## **Giza eskubideen aldarrikapen unibertsalaren urtean gertatua**

<i>1948 Euskal Erresistentzia</i> .....	79
<i>Euskaltzale eta ortik Abertzale</i> .....	79
<i>Eusko Jaurlaritzaren erabakia.</i> .....	84
<i>Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco.</i> <i>Notificacion:</i> .....	84
<i>Eraskiña:</i> .....	85

# Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

<i>1948ko abenduaren 10ekoa</i> .....	87
<i>Itzaurrea</i> .....	87
<i>Giza eskubideen aldarrikapen unibertsala</i> .....	89
<i>1. atala</i> .....	89
<i>2. atala</i> .....	89
<i>3. atala</i> .....	89
<i>4. atala</i> .....	89
<i>5. atala</i> .....	89
<i>6. atala</i> .....	91
<i>7. atala</i> .....	91
<i>8. atala</i> .....	91
<i>9. atala</i> .....	91
<i>10. atala</i> .....	91
<i>11. atala</i> .....	91
<i>12. atala</i> .....	92
<i>13. atala</i> .....	92
<i>14. atala</i> .....	92
<i>15. atala</i> .....	92
<i>16. atala</i> .....	92
<i>17. atala</i> .....	93
<i>18. atala</i> .....	93
<i>19. atala</i> .....	93
<i>20. atala</i> .....	94
<i>21. atala</i> .....	94
<i>22. atala</i> .....	94
<i>23. atala</i> .....	94
<i>24. atala</i> .....	95
<i>25. atala</i> .....	95
<i>26. atala</i> .....	96
<i>27. atala</i> .....	96
<i>28. atala</i> .....	96
<i>29. atala</i> .....	96
<i>30. atala</i> .....	97

## **Gure irakurleari:**

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: “Len”, oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza emten digutenak “laguntzaillè” taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

**Gaur, diru kontuetan estatusunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zanbakietan.**

**Gure kontuen zanbakiak onek dira:**

**BBVA: 0182-1296-00-0201538669**

**KUTXA: 2101-0200-46-0006681589**

# Atarikoia 2013

## 2.013'ko Euskerazaintza'ren urtea-2n aldizkaria.

*Barroeta ta Amorrortu'tar Klaudio Euskerazaintzaren lendakaria, Egurrola'tar Iñaki lendakari ordea ta Fernandez'tar Karmele diru zainak, ondo osotutako aldizkaria dogu emen.*

*Bere idaz-lanaren zerrendan ikusten dogunagaitik, Euskerazaintzaren idazlaneko edestitik garrantzitsueneko idazpuruak aurreratu egiten dauskue, Euskerazaintzak bere bizitzan, Euskerarentzako euki dauan garrantzi andia aurreratu naian.*

*Asmo ederra benetan, gaur eguneko bekaizkerizko mundu onetan, bereztasunezko azturan sortutakoa dan izar garbi ta aundi Euskera maitagarri onek, daukazan ainbat etsaietatik askatzeko, eta bigarren, gure maitetasunezko gogoak pil-pillean eukinda, gure Euskerazko izar aundi au nortasunezko indarragaz sendotu dagigun, berak len, egarri-arazteko mundu<sup>(1)</sup> onetan, gure bizitzazko jakintasunean azturazko ekintzan ibili ondoren, nortasundu euskun bezela.*

*Barroeta'tar Klaudio'k bere oldozmenean jakinda, Euskerazaintzaren bizitzan nire artu emona asieratik dala, nik egin dagiala agindu eban atariko lan au. Orregaitik, aldizkari onetan datoizan idaz-lanen esanguretatik ez dot ikutuko ezertxo be, ni neure-baitaren oroimeneko edo ta oldozmenezko zentzu bidetik, nire siniskerean euskereak euki eta daukazan arazoak zuen ezagumenera aurkeztu baiño ez dautsuet egingo.*

*Eta ortik agertzen jatan lenengo itauna auxe da:*

**Jakingo ete dogu, euskerea ta aberria zer diran ?.**

Nire baitan ulertzen dodan araubidea, arrazoizko bizitzan eta jakintzazko aztura bidetik emaitza oneitara eldu nazelako da.

Jainkoaren Izadi onetan emakume-gizon jaioa lez: "ni, zu bezela, inguruko izatasunari zor dautsek nere egikera, inguru orrekin nortasunezko-gizon-emakume egin nazelako".

Berezko lege orreitan, atomoaren<sup>(2)</sup> leen-gaiezko<sup>(3)</sup> gunegaz<sup>(4)</sup>, gizon-emakume artean bezela, sortu egiten diran elkarte edo gai-gauza bakoitzaren nortasunezko berezitasunak mugatzen dira.

Orregaitik, Jainkoak Izadi onen gaiari emoneko osagarritasun edo erakar-indarraren legeagaz, bere atomoaren arteko antz edo kidetasunean osagarritzkoak diranakaz, mundu au bizitegi, elikagarri<sup>(5)</sup> eta langintzaren tresneriko gauzatan biurtzen da.

Gai-gizatutako gizon-emakumearen osagarritasunezko legeagaz be, bardin sortzen da, bere ulermeneko izkuntz, antz edo kidetasunezkoak izanda, ezkontza, sendi, leiñu, auzotasun, erri edo eskualde, aberri ta aberritasun arteko maillak lortu ta osotzen doguzelako.

Berezko berezitasunaren lege orren zentzuak esaten dausku, zelako antz edo kidetasunezko baldintzak bear doguzan bereiztu, goi maillako erakundeak osotuten doguzanean, alkartasunezko-ulermendunak izan gaitezen.

Izkuntza da, leen tresneri sortzen doguna elkar ulertzeko, eta bere senezko zentzutik bereiztu egiten diran lez leiñuaren izenak, or, nun agertzen jaku Euskeraren izenagaz gure jaiotasunaren **aberritasuna**.

Euskerea, bere magalean jaioten garelako da, gure **ama ta aberria**.

Espainitarrak ete daukie **semetasunezko-aitormen** ori ?. Ez.

Ez daukie, katolikotasunean batzangotzeko norkeriaren asmotik agertzen dalako naikeri edo izangura ori.

**Jaiotzak** osagarritasunaren **aberriko** maillakoak paketsu ta ulermenezkoak izan daitezcan, beti, Jainkoak bereztutako legetik artuta izan bear diralako, espainitarrak euren norkeriaren legezko asmoetan ez jakie agertzen bakezko, edo ta ulermenezko aberri antzekorik, eta gaurko-lez katolikotasunezko-gudaloztearen laguntzagaz beti izango dira **aberri naiezkoak edo aberri-izan-gurekoak**, mundu onetan iñork ez daukalako irazale edo sortzaille izateko almenik, Jainkoak bereztu ebazan legeen kanpotik.

Espainitar orreik orain, gudalozteko idarkeriaren laguntzagaz, eta guzur dariola gaur dabiltzan lez ikusiko doguz beti, euskaldunak, katalanak eta galizitarrak eutsi egiten badautzagu Jaungoikuak bereztatuko legeari, lege orreik diralako ulermenaren babes edo bakezko iturriak.

(1) Gose egarri-arazteko mundu onetan = llamativo, que escita al hambre y a la sed. (2) Atomoa = parte más pequeña en que puede considerarse a la materia en su singularidad. (3) Leen-gai = materia prima, nucleo, elemento principal, alma, esencia. (4) Gun = parte mollar, nucleo, tuetano, medula. (5) Elikagarri = alimento para el funcionamiento vital.

**Edo ta, konturatuko gara, zer ote diran euskerea ta aberria euskaldunentzat ?.**

**Bigarren itaunean:**

**Zelako asmoagaz jaio zan Euskerazaintzaren Alkartea ?.**

a) Batzuen esanetan, *euskerea* tresneri uts bat bakarrik dala esaten dabenaren aurka, Euskerazaintzaren alkartekoak “*euskaldunen ama*” dala esateko.

Ala, *aberiaren* edo ta *ama*’ren itzak, beste azalpen, adiera edo ta adieraren mugarik ba-ote dauka?.

b) Beste batzuk daukien jakiturizko arrokeri guztiaz-gaz eta dojmakizunezko adierazpenez egia eurak esaten dabena bakarrik dala esaten dabenai, aurka eginda: *egia, Euskalerrian dagoela esateko*.

d) Euskerea samalda-lez erabili dagigun, eta daukazan akatzak beratu edo bigundu dagiguzan, gazteleratu egin gura dabenai: Euskalduntasuna eta euskereak beren sorburutik gaur arte, eta bai-ta bizitz oneri nortasunean izateko emon dautson adierazpenetik ez dabela galdu bear ezer.

Ikasita daukaguzanak nortasunaren ulermeneko maillatik, ez jakintasunezko maillatan ezartzen gaitulako leen.

Eta Gai-fisiko onek daukazan Jainkoaren Legeakaz, Jakintzak naspillatu egiten diranean, ulermenak naspillatu egiten diralako, endak naastekatu egiten diranean bezela, esateko.

e) Euskeraren izenean bizi direnak ezere zentzu edo ardurabagean, eta euskerea ogibide lez bakarrik erabilten dabenai, esan: Euskalerraren nortasunezko izaeraren arduratik-kanpo biziz-gain, Jainkoa iruzurtu nai-lanean dabizela alperrik, gure nai-ta nai-etzko eragilletasunaren eginkizuna mundu onetan, ordezkariartzaren artu-emonak, ekanduzko zentzuan zaintzea dalako.

f) Gure aldetik, batzangotzaillearen Menperatasunezko alegiñai begiratuta: Kontuan artu bear doguzela, gure euskal izaerazko nortasunari sortu jakozenak edestitik zear, gure erria ezereztu egin gura daben eskuetatik aldendutzeko. Bai eta errege-jauntzak sortu genduzenetik, euki doguzan anai-arteko borroka guztiekaz, eta karlistadako guda bien bidetik euki genduzenak batez be, beti ibili garelako ezin-besteko norabide barik anai-arteko borroka utsean.

**Eta edesti guztitik borrokan etorri diran aurkako gauza bi oneik izan dira errudunak,**

**izadi onen berezko erri edo ta Euskalerrriak batez be, ez egien bizi euren ardurapekoa dana eta zor-jakien askatasunezko bizitza :**

Lenengoan, guraso edo ta arbaso-euskaldunak euren baitan izateko, bereztasunezko azturan oituratu ebazan Jaungoikuaren sinismenak: *Jainko-Aitaren irudia ondo baiño obeto bereizpentzen jakin ebelako, Jainkoa berak Izadi oneri ipinitako gai-legeetatik, lege oneik, eurak euren arduragaz erabilteko zirala konturatu ziranean.*

*Euskaldunak, bizi onen lotsazko arduran sartuta, bereala jakin eben, Jainkoari zeozer eskaintzera-koan, gai-bereztutako izadi onek eukezan legearen bitartez izan bear zirala, eurak egin bear izan ebezalako arduradunezko eragilletasun guztiak, eta ordezkariartzako oitura orreitan baitu ziran, euren euskal-edestiko bizitzaren izatasunerako.*

*Ez da mirari-bat ba, euskalduna lotsati aundia izanez-gaiñ, maitasun josia, zintzoa, ulermen zabalekoa, egi-zale, eta leiala izatea.*

*Kartajinestarrengatik asita, erromatar kaizer-rrak, eta Euskalerrria jaurkintzeko euki genduzan errege-jaun guztitik, geienak menperatzaillak izan arren, katolikotasunezko batzangotasunaren asmo edo eritzi-pean sortutakoak ziralako, danak erakutsi eben edesti guztian, euskaldunak gura ebezala euren aldeko izatea.*

Bigarreanean, edestian eten-barik zer sortu jakuna esan bear da: *Erdi-aroan gure errege-jaun, anai-arteko batzar, eta sortu genduzan jaurkintzazko antolabideak gure askatasunezko batzar demokratikoaren bitartez, Nizean 325 eko urtean dojma-bidez, kaizar-menpeko batzangotasuna egokitu zanean, eta eritzi ori babesteko merkantillezko tresneri guztia esku batzuetan bakarrik geratzeko alegindu ziranean katolikotasunezko erlijioaren laguntzagaz, Euskalerrria bere sinismen sakonagaz, ugarte bat izango balitz-lez, sasi-maixukerian dojmatuta guzurrezko itsas-aundi baten erdian geratu zan nora-biderik-bage inguratuta. Mundu onetan Jainkoaren lege-bidez, bereztasunezko legean lortu ziran berezko gauza guztien antzera.*

Mundu fisiko onetan, egiñak egillea daukielako: *gure egilletasunaren eritzi-ziko ekintzan egokituta, sortzezko bidean ipinten doguzan gauzak, gauza orren sorralditik artzen doguz emaitzazko ondo-re-on edo txarrak, eta abialdiz ipinten doguzan gauzak, oker edo txarrak izan ezkerok, ze mozkin, edo zelako emaitzak artu ?.*

-Gaurko bizitzan sortzen jakun *guzur utsezko ekandu baten bizitzea baino besterik ez*, katolikotasunaren batzangotasunezko arrokeriaren norkeriz, egiaren oreka guztiak galdu diralako.

*Euskalduna, egi-zalea da bere baitan, Jainkoaren legeak lotsati aundia izan dalako beti, eta gaurko guzurraren lorategi-zabal onetan, Euskalerrria ugarte txiker bat-lez geratu arren, badaki egiagaz askatuko dala, azken baten, guzurraren larritasunezko amiltegitik egiaren bakezko lasaitasunera agertu bear garelako, Jainkoak gaitu eben berezitasunezko bizitz onetan, aurrera egingura ba-dogu.*

*Garde tar Martzeliño apaiz-naparra euki gendun argi, sinismen oneitan, beti: "Egiak askatuko zaitue" esaten euskulako.*

*Euskaldunai bestela, mundik agertuko jakun gaur bizirik agertzeko, arrigarritzko mirari aundi au, Jainkoaren egian sinismenduta ez ote baginān bizi?*

*Paleolitiko-Neolitiko aldietan Euskal askatasunezko demokrazi ederrean ezarri giñanetik, ez dogu sekula atzerakadarik egin, sinismen orreik lortu genduzenetik gaur arte, nai eta gure euskal zabaltasuna asieratik Eskoziatik Kadizeraino, eta Atlant-itsa-sotik Alemania erdirarte izatetik, gaur daukaguzan zazpi lurralde txiki onetan geratu arte, gure askatasunezko euskal-demokraziaren sinismenetik ez garelako ezertxo-be berezkatu.*

*IXn gizaldian, euskal errege jaunak ipini genduzanean gure Euskalerrri maite onen gizarteak jaurkitzeko, gure nai-ez, katoliko-batzangotzeko menperatzailetasunaren sare-arteke txebera barruan ipini bear genduzan, gure askatasunezko euskal-legeak, eta ortik, gure anai artean etenbageko borrokak, espainitar erregearen jaurkintzapean ezarrita, auek etenbageko katoliko-kaizar maltzurrezko-jokoan jokatzan ebelako, edo ta egin bear ebelako, euren kaizar gauzatarako ara ta ona anai arteko borrokan ibiltan genduzalako beti, sasi-katolikotasun oneik, ez ebelako on edo kontu onean artzen be-rezko errien legerik.*

*Len esan dogun lez, beste berezko erritarren antzera euskalduna egi-zalezkoa izanda, leialtasun eta zintzotasunezkoa ba-da, eta ain onbidetzko ta erlijiozko sinismen aundi eta kutsbageko borondateak eukinda, menperatzailezko maltzur baten eskuetan egonda, zer gertatuko jakun, gure artean, korapillatuta agertzea baino besterik ?.*

*Argi dago, orduan eta beti, ziñezkintzan ibiltan ziran jakitun katolikoak maltzurutasunez jokatubela, berezko erritarrei ez eutsielako esaten, euki eben berezko nortasunaren ulermenetik, Aita Santu-kaizar katolikotasunaren latin-nortasundutako batzangotasunaren eritzipera aldatu bear ziralako, eta erritarren asarreak ez zitezzen bizkortu, eurak eukin latinezko nortasunean batzangotzeko asmo orreik ostondu egiten ebazan.*

*-Eta ziñezkintzan ibiltan ziran jakintsu orreik goitik begiratuta jakinda, erritarrak eta errege-jaun orreik, inork ez eban ulertzen nastezko lege orrekaz borroka utsez konpontzen ziralako, ez eutsoen jaramonik egiten, ia azken baten eta andeatu egiten ziranean, katolikotasunezko morroitasunera biurtzen ba-ziran.*

*Orregaitik, Euskaldunak euren egi-zaletasunagaz erlijio katolikoaren sinismenean ondo egokitututa, eta ardurak aundiko zintzotasunagaz ainbeste Te-Deum'eko ospakizunetik ibili ondoren.*

*-Te-Deum'eko ospakizun orreik ez gintzazalako konturatu alderdikerezkoak ziralako, 325'eko Nizea'ren batzarretatik etorten ziran batzangotasunezko menpetasunaren alegiñak ziralako, eta gitxiago, XVn gizaldi azkenetan Granadako "bake errian, espainolaren aberritasunezko nazional-katolicismoan biurtuta" nortasunbageko sare-arteke txeberak ziralako, gure euskal nortasunaren izaerazko osotasuna zalantzazko lokatzartetan geiago nastekatzen zan, batzuk karlista, beste batzuk erreketek eta beste asko ogi-bidearen lekutik ur-egoteko, falanjista biurtu zirenai ezker, banaketazko eritzietan, zin-tzotasunez euki gendun sinismeneko borondate indartzuagaz sartuta.*

*Gogoratuten zarie, 1.810-12'ko urte bitartean espainitarren gudal-nagusiak erregearen gainetik sortu eben konstituzioa eta gero 1.832-39 eta 1.872-76 Maroto eta Esparterok egin ebenagaz ?.* *Eta guzti ori, Euskalerrri maite onen nortasunezko izaeraren "oiturazko-foruak" babesteko laguntza bakarrik eskatu gendunean.*

*Euskaldunak gure jaurkintzazko antolamenduetan aukeratu egiten genduzan jaun-erregeak, eurak eukiko zituzten beste izaeratik kanpo, gure errian alderdigabekeriaren epaiketazko lanak egien, artzen genduzelako.*

*Zer gertatu oteko jakun, norkeriz gure senetik kanpo ibili ba-ginān ?.*



*Orain, danok dakigu, zer gertatzen jakun euskerearen nortasunezko sen edo zentzutik kanpo gabiltzanean.*

*Orregaitik ikusten dogu: Gu izan bear gabela bakarrik, sasi-izaerazko lokatz onetatik urten bear dogunak, etsaiari laguntza eskatu ezke-ro, eta etsai asko daukaguzan-lez, gure euskera maite au, geiago lokatzu egingo geunkelako.*

*Beti baiña: alderdikeri barik, euskerearen maite-tasunezko zentzuan alkartuta, ortik kanpo gure aukera guztiak, amiltegiak biurtzen diralako gure Euskalerrri maite onentzat.*

*Or, gure Euskal seme-alaba zintzoaren lana, "euskerearen izatasunean irautea gura ba-dogu".*

*Danok dakigulako, Ludi onetan sekula ez dala egongo bakerik, bere magalean jaioten diran antzezleri guztiai, ez badautsoe izten, jaiotzatik daukan bere ordezkarietzako eskubidearen-jokuagaz arduatzen.*

## Oar-txiki bat emen.

Orainarteko esanak, nik Euskerazaintzaren sortzaille jakintsuagaz kideatasunean ikasi ta ulertu dodazanak dira: Onaindia ta Baseta´tar Aita Santi, Zubikarai´tar Augustin, San Sebastian´tar Joxe Mari (Latzaga), Latiegi´tar Bizente, Oñatibia´tar Manu, Arrinda´tar Anastasio (Anes), Bilbao´tar Jon Erramun, Zubiri´tar Iñaki eta Olazar´tar Martin´lakoak, euskal-arazoen azterketazko eginkizunetan sartzeko eskatu eustenetik, zintzo asi nintzelako lanean.

Orregaitik Euskerazaintzan, euskeraren alde nik entzundakoak edestuko dautsuedaz, danak eta geiago bear doguzelako, gure *euskerazko ama maite* au, merezi dauan lekuan kokatu arte.

## Edesti lez.

1.979ko urtean alkartu nintzan gure Aita Santi ospatsuagaz, eta bera ibili neban ara ta ona bear eben guztirako nire berebillagaz.

Euskerazaleak, Lekuona´tar On Manuel, Barandiaran´tar on-Miel, Kardaberaz´en Bazkune-ko Jakintza, ta ainbat lekaide, apaiz eta gizon-emakumeen arduradunezko laguntza-gaz, Euskerazaintzaren sorkuntzazko denborak ziran oneik, eta eurak erakutsita benetan diñotsuet, nire baitan ez dodala bakerik euki, gure Euskerea eta euskal-nortasuna amilburuko ezeztasunaren ertzean dagoela ikusi nebanetik.

1.968´ko urtean, Euskaltzaindiaren deiagaz Arantzazun, gero 1.970eko urtean Baionan, Ermun, eta Arantzazuko asken batzarrean-be, enintzen egon.

Ez eta 1.978ko urtean Euskerazaleak eta Kardaberazarrak Bergaran egin eben batzarrean be ez. Badaukat nire gogoan baiña, Onaindia ta Baseta´tar Aita Santiren esanetik, zeintzuk ziran batzar oien mugaketak: *Batzar orreitan gazteak irabazi ebela, oneik zalapartari edo arraboskari agertuta, "zarrak isildu" egin ziralako.*

Baiña bai egon nintzan, 1.980´ko urtearen Urria´ren 27´ko egunean Latiegi´tar Bizente, Oñatibia´tar Manuel, eta Oñatibia´tar Duni-xi´k sinatuta Euskerazaintza legeztuteko, latorritasunezko ministruari bialdu eutsoen eskutitzan, eta 1.984´ko urtean Bagilla´ren 7´an legeztu zanean.

Euskalerrriko sei lurraldeetatik batzen giñan, Tolosa, Eibar, Zarautz, eta Deban egiten genduzan batzarretan, eta gogortasun edo ta ots-aundiko batzarrak izaten ba-ziran be, Euskereagaitik ar-dura aundian sartuta egon ziralako izaten ziran. Akesolo´tar On-Lino Aita karmeldarra izan gendun leenengo lendakari, eta sekula enaz aaz-tuko, berak "H"agaitik euki eban eritzia: *Zetan sartu gure Euskera maite onen berba artean, aostkatzen ez dan, laraiña, urre-sagar edo ta laranja-erdi ori ?.* Asto utsak baiño besterik ez dira.

Eta benetan diñotsuet, astokeri asko ta mailla aundikoak egin dautsaguzala gure euskera maite oneri, aurrera egiten lagundu baiño, atzeraka ipini ebena, bere gorputzan ain zauri sakonak egin dautsaguzenakaz.

Ainbat liburu idatzi dabez Kardaberaz-Euskerazale-Euskerazaintzaren izenean, lekaide, apaiz, eta errigizon-emakumezko kide jator eta ospatsu guzti oneik, e-mail bidez itanduteko, Bilbaon Kolon de Larreat egi 14-2n eskumatara gure Alkarteari idatzita<sup>(1)</sup>, eta Interneteko<sup>(2)</sup> bidetik: [www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org) eta e-mail: [aeuskerazaintza@gmail.com](mailto:aeuskerazaintza@gmail.com) lekuetan aurkituko dosuezenak.

Irakurri bear direzan liburuak dira, oartu gaitetzen euskereak bizitzeko daukan larritasunagaz, eta gaurko jakitunak ikusi daben antzera guk be ikusi dagiguzan, euskereak daukazan arazoak benetakoak dirala, eta beti salatu dogula gaur sortzen dan lez, elebiko edo ta izkera-biko bidetik, Euskerea kondar-lez geratzen dala.

Euskalerrri askatasuna bear dau ezeren zalantza barik, bere nortasuna dagoelako jokuan, eta ze obe, gaurtik aurrera danok alkartuta zuurtasun aundiz eta norkerizko arrokeri ustelak albo-ratuta, lan orretan asi.

Dana dala, batzarretako denbora askotan ni, euren maitik kanpo geratzen nintzan, urruntasunetik obeto aituten nebazalako euren esanak eta azken baten ulertu, batzar areitan nire eritzirako irazpenduta(3) artzen nebazanak.

Benetan ulertu neban, batzangotasunaren indarkerizko bidetik, laterri bakotzaren nortasunak ezereztu egiten zirala ezinbestean, eta beste bide bat artu bear zala Euskalerrriko nortasuna osotasunezko itxuran agertu zedin.

Orduan erabilten ziran euskalkiaren nortasunezko azterkuntzan zalantzazko eztaibadagaitik, San Sebastian´tar Joxe Mari (Latzaga)´k, saio bat agertu eban orren gora-beran, ta bere itaunean au esaten eban: zazpi lurraldearen nortasunagaitik, **zazpi aberri ezberdintasunezkoak izango ote giñan ?**.

Danak dakigu, erlijio, oitura edo ekandu, ta izkuntza batekoak garela eta beragandik **aberr**i baten jendekuntzazkoak.

Lenauko aukeraren urruntasunagaitik, laterritasunezko euskalki antzeko baten agertzea sortu jakun, baiña gaur ez daukaguz urrunezko bitarte orreik euskerearen arazo gramatikalak borondate onagaz konpontzeko, apur-apurka ta zentzu aundiz artu bear diran erabagi soillak ontzat artzea baiño, Euskalerrriaren euskalki gorputza berez sendotu daiten.

Kendu bear doguz gure euskal oldozmen ingurutik, kanpotik sartuta gure artean aurka ipinten dauskuzan gizarterkerizko eritzi ezberdiñak, gure Euskal anai-arteko **ba**ita, **ber**ez, demokratikoa dalako, eta or erakutsi bear dautzagu Europa ta Munduari, **euskaldun jatorrak garala, gure arbasoak emondako nortasunaren askatasuna lortu gura badogu**.

Emen daukasuez ba, Euskerazaintzaren askeneko aldizkari onen bidez aurkeztu egiten doguzan 30 urteko edestiaren gure **euskal-gizon-emakume**

aundien arduradunezko eritzi sakonak, gure Euskalerrriko arazoak zeintzuk diran, argitan apal eta ezeren arrokerizko sasi-dojma barik aurkezten dabezanak, **eurak ez ziralako izan arrokerietan ibiltzen ziran euskal gizon-emakumeak**, eta bai langille trebe ta neke-bakoak gure **euskalerrri maitte onen alde**.

## **Emen daukasuez irakurteko, eurak agertu ebezan lan-eder batzuk.**

*Euskerazaintza eta "Euskera Batua"an.*

*Euskeraren batasuna eta Euskal sena.*

*Goaz batuaren bidean izandako batzuk aipatzera. Edesti apur bat egiñez.*

*Euskaltzaindia, Arantzazu eta Bergarako batzarretan.*

*Euskerazaintzaren sorrera.*

*Euskal sena.*

*Euskeraren batasuna eta Euskalkiak.*

*Euskeraren batasuna eta Bizkaiera.*

*Aipamen berezi batzuk.*

*Andik eta emendik.*

*Irtzi eta ondorio batzuk.*

*3n ataleko Ondorio gisa.*

*Euskerazaintza, euskeraren erri akademian.*

*Geigarriaren denbora-epaile.*

*Euskerazaintzaren sortzailleak.*

*Euskal-Ikaskuntzako Vn Biltzarraren kondaira.*

*R.M. Azkuen itzaldian, "Euskalerrriko oitura ta sineskeritxu bat edo beste".*

*Gandiaga´tar Bitoriano´ren, "Ez dut errezatuko erderaz".*

*Gandiaga´ren bertsu edo itz-neurtu ederrak.*

*Euskaltzale eta ortik abertzale.*

*Murua´tar Joseba Mirena´ren Eusko Jaurlaritzaren erabakia, adierazpena ta eraskiña..*

*Eta, "Giza eskubideen Aldarrikapen Unibertetsala".*

**Atutxa´tar Paul**

**Zornotza´n, 2.013´an Agorrilla´ren 5´ean**

### **Gure irakurleari:**

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adiskideentzat jarritako oar bar agertu zan, arpidedunai diru-laguntza eskatuz. Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago degu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak "laguntzalle" taldera sartuko ditugu.

### **Gure kontuen zenbakiak onek dira:**

**BBVA 0182-1296-00-0201538669 • KUTXA 2101-0200-46-0006681589**



# 1. atala

## EUSKERAREN BATASUNA ETA EUSKAL SENA


Euskerazainzta, On Manuel Lekuonaren Kardaberaz Jakintza Bazkunakoak, sortu zutenean, “Garo eta gorotz” usaiko euskera utzi egin bear zela esan zuten batzut, eta “Euskara urbanoa eta funtzionala” bear zela. Eta orretarako egokiena,” Lapurtera zaarra zela”. Gero adibide batzuk azalduko ditugu, bide orrek nora eramán zituen gauzak ikusteko. Eta ea, gaur egun ETBn, entzuten dugunarekin, egunkarietan eta aldizkarietan irakurritakoarekin, non kokatzen ditugun gauzak. Ea gipuzkera den, edo orren ingurukoa, ala “urbanoa eta funtzionala, garo eta gorotz usaitik urrun”?.

Azken boladan, entzuten dugunarekin, edabideetan, jo batera eta ajo bestera Batuarenarekin, badirudi, zuzen-zuzenean, or sortutako ekaitz gogorrari alde giñez, GIPUZKERA gertatu dela babesá, eta irtenbidea

Nork ukatu gaur egun ETB-n entzuten dugunarekin, leengo delako “URBANO “ ura utzita, **Gipuzkera bete-beteán artu dutela.** Baiña or dira komeriak, gipuzkera batzuk beintzak ezin menderatuz dabilta. Eta ala nola jatortasun baten billa, itz asko entzuten ditugu, bere lekutik kanpo. Ez al zen bada, erri euskera, “Garo eta gorotz “ usai zuena utzi bearreakoa. Eta orain senda belarra bezala artu al dezue. “Urbanoak” sortutako zorabioa kentzeko?. Zorabioa diogu. Ikus aurrerago azalduko ditugun aibideak.

Gero luzatuko badugu ere gure azterketatxoa, asiera-asieratik, zilegi beki-gu nabarmentzea. Egunoro entzuten ditugun itz batzuk, zenbaiten aotan, lekuz kanpo eta bere esania okertuta, agertuko ditugu, lantxo onen itzaurre gisa.

- DAGOENeko. Zerbait gertatua, bai, baiña, uste baiño leenago. Adibidez: Emen al zerate? Dagoeneko! Beraz arridura. Eta baita ere, arridura gabe, gertatuaren aitorpena. Baiña uste baiño leen gertatuta. Ori izan da gure euskaldun zaarretan itz orren esan naia. Erderaz onela litzateke itzulpena: “ Tan pronto?”



- BERTAN. Leen aipatutako den lekuan bertan. Adibidez: “Tolosan batzarrera izan dugu, eta bertan bazkaldu dugu”. Bi ekintza daude, eta leku berean. Indartzaille ere bada. Geigizkoa ordea ez ote dugu entzuten? “Gazteizen bertan”. Bai al dago besterik?

Aldi berean eraskulerik oso gutxitan: AR, OR; EMEN. “Bertan”-ren orde erabili litezkenak eta egokiago. Bear ez da, askotan entzuten dugu.

- NAIKO ETA NAIKOA. Geien geinetan, NAIKOA entzuten dugu. Nik berriz bereiz egingo nuke: NAIKO LAN (izenaren aurretik). Eta NAIKOA DA (Aditzaren aurretik)
- NAGUSI. Ainbeste nagusirentzako bai al dago maizterrik? Eta zergatik ez?. Gorena, onena, gaillendu, irabazle.
- ONENA: Gutzitan entzuten dugu, eta bai ordea OBERENA. Eta obere-na ez da onena. Bi aukera baldin badauzkagu, bat bestea baiño ohea gerta liteke. Beraz, Oberena. Orain OBERENA, ONENAREN ZENTSUAN ESATEN DUTE ASKOK ETA ASKOK.

- GIXA: Gaizki erabiltzen dute batzuk. Zergatik? Maxu gixa baldin badabil, ez da maixua. Maixuaren lanak egingo ditu, baiña ez da maixua. Naikoa litzateke MAIXU DABIL, MAIXU IZANDATU DUTE, ez maixu bezala. BEZALA berriz zearo baztertua ikusten dugu.
- PROPIO. Bere, Euskadik bere selekzio propioa bear du. “Propio ori zertarako?. Berea baldin badu ez al du “propioa?”
- DITXOSOZKO. Zorioneko.
- PODERIOZ: Eragiñez. Dela eta.
- Ez al zenioten deitzen orri “gorotz eta garo usaikoa?”.

Garbi dago, euskera eta edozein izkuntzetan, aozkoa baiño jantziagotxo bear duela izan idatzizkoa. Ala ez?. Eta zergatik oriek erabili? Euskerazko itz jatorrak eta jantziagoak euki eta?.

DELA ETA: Izan zen bolada bat, zenbaiteren aotan, ia esandi ori, bakar bakarrik, entzun genuena. Kausaltzat. Eta zalantzak ere badagoz, orrek zergatizkoa adierazten duen.

KAUSALAK edo ZERGATIZKOAK: Oriek eskatzen dituzten atzi-kiak, sartzen, naiko lanak dira zenbaiteren aotan. Eta askotan bear ez, da azaldu dute KAUSA EDO ZERGATIA. Geientsuen – LAKO entzuten dugu. Eta beste aukerak noizko? –NEZ.-NEZ GERO. – TEARREN.-TEAGAITIK. –BAIT.

- GETARIKO ARRATOIA. Ez al da xagua?. Euskeraz beti ARRATOIA, rata izan da. Eta xagua, ratón.

Gera bedi orretan, naiko adibide azaltzeko asmotan bait gera, lan onen luze-zabalean. Gaur egun bizi-bizirik dauden joera batzuk aipatzea nai izan ditugu, ordea, sarrera gisa.

## 1.1 ATALA

### 1.1. GOAZ BATUAREN BIDEAN IZANDAKO BATZUK AIPATZERA. ISTORI APUR BAT EGIÑEZ.

1968gn. urtean, Arantzazuko, Euskaltzaindiaren deiaz, batzarra izan zen euskera batuari buruzkoa.

Ori dela eta On Lino Akesolo karmeldar jakintsuak idazki batzuk zabaldu zituen.

Aurrena esan dezagun laburbilduz nor izan genuen On Lino Akesolo. Euskerazaintzari dagokionez, leenengo leendakaria. Eta leendik On Manuel Lekuonaren Kardaberaz Jakintza Bazkunako bazkide.

1911ko apirillaren 7an Diman (Bizkaian jaio zen). Bizkaiera bezain ongi menderatzen zuen gipuzkera. Biak goi-goiko maillan. Bere idazlanak irakurri besterik ez dago orretaz jabetzeko.

Karmeldarra. Eta batez ere izkuntzalari bezala aipatu degunez gero, esan dezagun bide batez, euskera eta gazteleraz gain, ingelesa, alemanera eta italiara ere menderatzen zituela. Eta latíña eta grekera zer esanik ez, eliz gizon zen aldetik. Beste euskaldun asko bezalaxe zigorpean ere igaro zituen iru urte inguru. Frankoren diktadurapean.

Bere berri geiago jakin nai duenak, jo beza bi liburu marduletara. Lino Akesoloren IDAZLAN GUZTIAK. Julen Urkizak prestatuak. Eta bere agerpenak ere onoko aldizkarietan: Eusko Gogoia, Olerti, Zeruko Argia, Karmel, Yakin, e.a. Egunkari bateko mozkin batean au ere irarku dezakegu: "Premio del Merecimiento de las Letras Vascas". 1989an. Epai maia: Juan Mari Lekuona, Alfonso Irigoien, Andolin Eguzkiza, Andu Lertxundi eta José Legarreta au Eusko Jarlaritzaren izenenan.

Gure aipamen apal eta labur onen ondoren, goaz astera, izanburuaz azaldu-tako gaiari eutsiz.

“Euskeraren batasuna dela eta, onela dio On Lino Akesolok- bere liburuetako batean: “Etorri gaitezen orain azken aldiko saioetara. Orain dela sei-zazpi urte (1970gn. ari da) agertu zan beste bultzada bat batasunaren alde. Mugaz aundian abiatu zan, baiña emengoak zirala uste det bultz-eragille.

“Or degu Baionako batzarra. Geroxeago Ermuako batzarra dator, eta azkenez Arantzazukoa. Bultzada esan diot oraingo joerari. Eta alakoa da. Baionako batzarra ezker, bultza eta bultza ari dira asko, egundaiñoko ezin egonak jota bezala. ALBAIT ARINEN EGIN NAI DUTE ZERBAIT. Euskaltzaindiaren, naiz Euskaltzaindiaren gaiñetik, aurrera jo bearra omen dago. Eupada bat ere jaurti zitzaion Euskaltzaindiari “edo batasuna egin eta goitik bera ezarri, edo euskeraren etsai zarete, eta aien etsaien adiskide” (Enbata n.28-IX-1963)”.


Eta aurreko batasunari buruzko jardun aldien, edo batzar guztien gaillur bezala 1968ko Arantzazukoren deia izan zen. Eta inguru orretan abiatuta, aita alemana zuen jaun batek, esana: “Lapurdiera zaarra artu eta eginda daukagu batasuna”. Beste au ere atera zuten batzuk “Euskera” urbanoa eta funtzionala bear dugu”. Eta “orretarako alperrik dira gure nor-nori-nork bereizketak”. “Eta joskera ere latinkumeen izkuntzetara makurtu bearra dago gauzak errazte arren”

Onela jarraitzen du On Lino Akesolok: “Gero batasunetik iñoizko urrutien jarri ez ote geran nago. Iñoiz baiño euskera berri geiago azaltzen zaigu. Eta dana euskera batuaren izenean. Bakoitzak dauka bere euskera, euskera batutat, edo talde bakoitzak alakotzat dauka berak nai duena. (...) Danerako ematen du bidea 1968ko. Arantzazuko Batzarrak.

Gero Mitxelena jaunak esandako batzuk aipatzen ditu On Lino Akesolok: “Batasuna ez da ameslari batzuk uste duen aiñako erraztasunez egiten. Nekerik eta eperik bear ko da ortarako. Oztopa jarri bat baiño geiago kendu bear ko da bidetik, Mitxelenak Arantzazun esana da urrengo au ere”: Ez da nor Euskaltzaindia, oraingoz, oiñarriztat zein euskalki autatuko den erabakitze ko”.

Luze joango luke dena frogatu bear ori. Oraingoraiño ko arekin uste dugu, naikoa izango dela zer nolako naasketa, ondoeza eta lizkarra sortu zen orduan euskera batua izeneko inguruan. Ez dago bearrik ere, beste atal batean ikus ditzakezue, orduan sortu zutena **“euskera urbanoa eta funtzionalarekin” Eta giro orren aurka atera zen Euskerazaintzaren sorrera, erri euskera edo euskera biziaren alde.**

Arantzazuko batzar ura zela eta, eztabaidak sortu ziren, eta Euskerazaintza sortzearena ere or gertatu zen.





Ori dena zeaztasun geiagorekin “Liburu Gorria” izenburuarekin Euskera-zaintzak bere aldizkerietako batean argitaratua, XLIII., XLIV. zenbakiak” 1998an. daukazua. Ona emen Liburu Gorri” orren edukiaren aurkibidea:

# 1.2 ATALA

## EUSKERAZAINNTZAren

### liburu GORRIA

**1968-1998**

**GAI ZERRENDA**

**AURKIBIDEA**

- ITZAURREA/PROLOGO/PROLOGUE

#### **1. 2. 1. EUSKALTZAINDIA, ARANTZAZU ETA BERGARA´ko BATZARRAK**

1.01. Arantzazu eta Bergara ´ko batzarraren ondoren. Manu Oñatibia.

1.02. Bergara ´ko batzarrera ez agertzea erabaki genuen 1978 Euskerazalea ´k eta Kardaberaz ´tarrak.

1.03. Kanpotar euskalari guzieri / A los euskerologos extranjeros/ To all Foreign Basque Language Scholars. L. Akesolo.

1.04. “Euskerazaleak” discrepa de Euskaltzaindia (El Diario Vasco 30-7-78) Entrevista con F. Yurramendi.

1.05. Euskaltzaindia berriak 25 urte betetzean, batuaren arazoa. Anes Arrinda

1.06. Euskaltzaindiaren 50 urtebetetzea. Euskeraren batasuna. On Manuel Lekuona ´ren “deskargua”.

1.07. De la Academia me echaron los “hachetistas”. Manuel Lekuona.

1.08. H´ak salbatu du euskera. A. Arrinda.1994.

1.10. Nor genuen On Manuel Lekuona. Gure Lekuona “Zaarra”. “Aozko Literatura” liburutik. Aurre Itz. A. Arrinda 1975.

### **1.2.2. EUSKERAZAINTZAren sorrera**

2.01. Estaduko Ministroari legezatzeko eskaria. B. Latiegi. M. Oñatibia. D. Oñatibia.

2.02. Legeztapena eta Erri-Zuduzkotasunaren Aldarrikapena:

- Ministerio del Interior. 1980-10-27 ko gutuna.
- B.O.E. 45/1981 eta EE.AA. 96 zenb. 1984-6-7.
- Eusko Jaurlaritzaren Elkarte Erroldan A.S.R.P.G.- 00136 zenbakia.
- Procedimiento para solicitar el reconocimiento de Utilidad Pública, y derechos que confiere.
- Ley 3/1988 de 12 de Febrero de Asociaciones. B.O.P.V nº 42 del 1-3-88.

2.03. Euskerazaintza´ren Araudia 3/1988 Legearen arabera.

2.04. Bazkide sortzailleen zerrenda.

### **1.2.3. EUSKAL SENA**

3.01. Euskal senik ez daigun galdu. A. Zubikarai-1991.

3.02. Baserria eta euskera. M. Oñatibia-1988.

3.04. Erderakadak eta akatsak. J. Gaztañaga-1989-90-91.

### **1.2.4 EUSKERAREN BATASUNA ETA EUSKALKIAK**

4.01. Euskera batuaren billa. Lino Akesolo-1970.

4.02. Euskeraren batasuna eta euskalkien indarra. Anes Arrinda-1975.

4.03. Leinuen euskerea. I. Goikoetxea.

4.04. Jesus Gaztañaga´k ez du etsi-1989.

4.05. Antonio Tovar Lingüista, y filósofo. Académico. Catedrático e Historiador. Uno de los grandes vascólogos no vascos. Sus opiniones sobre la utilización de la letra -H- y sobre la unificación del euskera.

Y otros: Julio Caro Baroja, Miguel de Unamuno, Franscesc de B. Moll. y Manuel Ramiro Valderrama.

### **1.2.5 EUSKERAREN BATASUNA ETA BIZKAIERA**

5.01. Itxartu zaiteze ..! Iñaki Zubiri.

5.02. Bizkaiera. Gotzon Garate.

5.03. Non itxiten zaitue, Bizkaiko euzkera maite ori? Kepe.

5.04. Deustu'ko Ikastetxe Nagusian, mai-inguru. Bizkaiko euskerea gai dala. Martin Olazar-1992.

5-05. Eusko Lege-Biltzarrari. Kepa-1992.

5.06. Mendebaldeko euskera XX. mende goiengan. Iñaki Martiartu.

5.07. Mendebaldeko kultur Alkarteari. Martin Olazar-1998.

### **1.2.6. AIPAMEN BEREZI BATZUK**

6.01. -H- izkiarena. Iparraldekoen oitura. Lafitte eta Iratzeder. (B.Latiegi. D.Oñatibia).

6.02. -H- Razón biológica?

6.03. Nora doa gure euzkera ? Jon Malax-etxebarria-1992.

6.04. Argi bidean. A. Zubikarai / Ha fracasado el proceso de euskaldunización. Federico Krutwing.

6.05. "Euskeraren Erabilpena Araukotzezko Oiñarrizko Legea. 30gn. Araua. Euskalkiak".

6.06. "Euskeraren normalizazio bidean urrats berriak" Eusko Jaurlaritza 1996 (Aipamen batzuk).

6.07. Euskeraren normalizazio bidea eta Euskerazaintza'ren jarduna.

6.08. "Altube ikasi gabe beste muturrera jo zuen jende askok". Juan Garziak ( El Diario Vasco- 98-3-7).

6.09. Patziku Perurena. "Hizkuntz mailen nahastea" (El Diario Vasco 28-11-92).

6.10. Ibon Sarasola'k: "Euskeraren batasuna pikotara doa"/"-Chicanotze-prozesu bat" ari dela gertatzen uste du.

6.11. Itxaro Borda'k Ibon Sarasola'ri." Mikaztu egin da Iparraldeko zenbait idazle eta euskerazainaren arteko eztabaida" (El Diario Vasco 19-6-98).


6.12. "Ensayos críticos sobre la unificación del vascuence" José Apalategi-1973. "Una hipótesis plausible mirando al futuro" Y sin duda acertó.

6.13. Euskaltzaindia, Gernika'ko Estatutoaren seigarren araua aldatzearen alde. Euskaltzaindia berria, euskeraren jabe ote .....?

### **1.2.7. ANDIK ETA EMENDIK**

7.01. Garcia Marquez "Nobelduna" eta Euskaltzandia Bixente Latiegi.

García Márquez, partidario de eliminar la letra-H-



7.02. Mexico: El “spangliss” hace una dura competencia al español. (“El Diario Vasco”). Batua ere, ez ote da berdin?

7.03. Profesor Gonzalo Torrente Ballester. Escritor y profesor de la Universidad de Santiago de Compostela. “Los técnicos del mundo de las computadoras utilizan términos ingleses hablando español. Esto es como **METER UN MONTON DE PEDRUSCOS EN UNA CONFITERIA**” Sería mejor que estos señores hablaran sólomente inglés. No hacen nada para adaptar la terminología al español. (Radio Cadena Española 20-8-85) ¿No está sucediendo lo mismo en torno al euskera en su relación con el castellano?

7.04. Real Academia Española de la Lengua-ren ikurrak: “Limpia, fija y da esplendor”, “Limpia”: Conserva la pureza eliminado términos no castizos “Fija”: Dando normas comunes “Da esplendor”: Conservando la riqueza lexicá - Eta Euskaltzaindia berriak, zer?

7.05. Ramón Menéndez Pidal(1869-1968) Numerario de la Real Academia Española de la Lengua. Catedrático de la Universidad de Madrid. Filólogo e Historiador. Su comentario sobre la unificación del euskera.

7.06. Fernando Lázaro Carreter. Director de la Real Academia de la Lengua Española. “Me irritan los que se ganan la vida con las palabras pero no las cuidan” (El Diario Vasco 1-4-1997).

Ⓔ

## 1.2. 8. IRITZI ETA ONDORIO BATZUK

8.0. Batua, bai ala ez ?.

8.01. Euskera baturik bear al da ?.

8.02. Batua egitekotan, zelan egin bear litzake?.

8.03. Kalterik ekarriko leuskio gure izkuntzari euskera batuak ?.

8.04. Euskalkiekin zer egin ?.

8.05. Euskaldun guztientzat berba egiten danean, zelako euskerea erabilli ?.

8.06. Euskera izkuntza bat ote ....?.

8.1. Galtzaille nagusi bat: BIZKAIERA. (1968'an %40)

8.11. Bizkai 'ko euskerearen aurka. Martín Olazar-1989.

8.12. Bizkaierak bizirik irauterik, bai ote ? Manu Oñatibia-1992.

8.13. Bizkaieraren etorkizuna irakaskintzan.

8.14. ”Nor dator gure amari bizia kentzera ? Santi Onaindia'ren “Euskal Literatura VI” liburutik.

8.15. Gure Athenas´en. A. Zubikarai-1981.

## EUSKERAZAINZA EUSKERAREN ERRI-AKADEMIA

Euskara Batuarena zela eta, ondorioz jarraiean gertatu zenaren adibide batzuk:

# 3. atala

## EUSKAL SENA

Edabideetan entzundakoetatik.

### 3. 1. Atala

- Edabideetan, euskera asko txukundu dute, alarik ere ondoren dijoaztenak orain ere entzun aal izaten ditugu, tarteka.
- Dagoeneko ..... Ez da “ya”. Dagoeneko uste baiño leen gertatua da.
- 4 denboraldi egin ditu dagoeneko..... (4 denboraldi egiñak ditu)
- Kasu onetan (erderakada utsa da)..... Oraingoan. Onelakoetan
- Oraingo onetan ..... Oraingoan ( Naikoa da)
- Arrixkutik irteteko modua ..... Egokiera. Aalegiña
- Gaur pronto esnatu gera ..... Gaur goiz/goiztar esnatu gera
- Etsaia ..... (Ez da batena izaten: Inpernuko etsaia/Euskal Erriaren etsaia) (Futbola dela eta ere entzuten bait dugu)
- 20 minutuko aldea besterik ez da egon ..... Ez da izan
- Itsasoa lasai ..... Itsasoa bare
- Laguntza bear duen kasuetarako ..... Laguntza bear duenerako(noiz edo zertarako?).
- Gaurkoa modukoa ..... Gaurkoaren antzekoa/Gaur aiñekoa/Gaur bezalakoa
- Positiboa dela ..... Onuragarria
- Akordioriz ez da egon ..... Itzarmenik ez da izan
- Ez dago jokatzeko moduan ..... Ez dago jokatzeko
- 25 graduren bueltan ..... 25 gradu inguru

- Illunabarraren bueltan ..... Illunabarrean ( naikoa da)
- Azken finean ..... Azken batean
- 2gn. postuan ..... 2gn. lekuan. Edo bigarren iritxi da ( eta kito). Baiña “ erderaz “ segundo lugar, segundo puesto” esaten dute-larik, guk orren kalko utsa egin bear
- Bezain pronto ..... Bezain azkar/Bezain laister
- Ez da espero ..... Ez da usterik
- Bero pasa dugu ..... Beroaldi galanta artu dugu
- Itsasoa bare ibiliko da ..... Itsasoa bare izango da/ Itsasoa bare dago/Itsasoa laino dago
- Erreparatu (Leen partizipioa da gaiñera)..... Begira/Entzun
- Posible da ..... Litekeena da/

(Posible es da euskal aditza, eta batzuk itz orrekin aalkera guztia jan dute)

- Kriston ..... Kristorenak eman zizkioten. Artu zituen (Esan oi izan da)

(Azken aldian, ordea, “Kriston “esaldi pilletan sartzen dabilta batzuk. Eta orrela: Kriston lana/kriston pelikula/kriston partidua. Badugu euskera jatorrean aukera ederrik, esan naiaren arabera: Izugarria, lan betea, lan ugaria, goimaillakoa, gendetza, eta ez “kriston gende pilla”)

- Naiko/ Naikoa ..... Batzuk diotenez beti “naikoa” bear omen du. Nik zalantzak jartzen dizkiot, uste orri. Nik berezi egingo nuke: Naiko lan izango dute / Naikoa dute. (Leendabizikoak izena darama ondoren. Eta bigarrenak aditza).
- Osasun arazoak dituela medio ..... Osasun arazoak dituela eta
- Datozen egunetarako ..... Urrengo egunean. Datorren astean. Urrengo egunetarako (Datozenak denak bait dira)
- Estreinaldia ..... Asiera/Leenengoz/Leenengo aldiz
- Emozioz betea ..... Unkiturik
- Ez dute aparteko estuasunik pasa. ( Ez dute estuasun aundirik izan)
- Gaiñeratu du. (Gaiñera esan du)
- Urte on BAT izanda ..... Urte ona izan da (Bestea erderakada utsa da “UN buen año”)
- Apenas euria botako duen ..... Ez dut askorik botako
- Larrialdi kasuan ..... Larrialdietan

(Betikoa, gaztelaniatik abiatu “ En caso de emergencias”. Eta guk txakurra-rena, erbiaren atzetik. Guk ere “kaso” esan bear.

- Estefaniaren paperan ..... Estefaniaren antzespenean/egin-kizunean
- (Erderakada utsa. “En el papel”. Ildo orretatik, norbaitek auxe ere esan lezake :“Estefaniaren ingian”. Beste ark bezala. “Combinación de trenes: Trenen azpiko gona”).
- Zer kontutaz ari zera ? ..... Zertaz ari zera/ Zeri buruz ari zera?
- Kolpe ederra ..... Kolpe galanta. (Kolpeak min ematen bait du eta ezin ederra izan).
- Bere Lege propioa ..... Bere legea
- Duela 2 urte ..... 2 urte direla (Nik orrela esango nuke). Beste esaldi bat ere sartu zen orain badirudi baztertua dagoela. “12 liburu ekarri dut”. Euskerak, ordea IT, askorena edo pluralgillea orretarako bait du, ain zuzen. 1 ekarri dut. 12 ekarri ditut.
- Miatu (miratu) ..... Begira (Latiñetik: vigilatum(vigilare). Bestea baiño, zaarragoa ez ote ?)
- Pilota partida ..... Zergatik ez beti esan dugun bezala “ Partidua”

Partidua edo norgeiagoka jolasten..... (Oso zabaldua dago. Ez da bereizten “jolasa” “jokoa”. Eta ariketa. Partiduak jokatu egiten dira. Erderaz ordea, jugar el partido esaten da, eta berriz ere txakurra eta erbiarena, gaztelaren atzetik alegia). Realak, Anoetan jokatu egiten du. Zubietan ariketa. Eta umeak jolastu egiten dute ikastolan.

- Eskarmentua ..... (Kurrikulum delakotan “Experiencia” esan naiean jartzen dute. Eta “Eskarmentua” esperientzi txarra da. Nik Jarduera, ipintzea naiago dut)
- Ez dago jokatzeko moduan ..... Ez dago jokatzeko (eta kito)
- Moduan ..... Eran. Beste batzuetan “ bezala”
- Partean (Arratsalde partean, Ipar partean.. Arratsaldean/ Iparraldean (eta kito)
- (“Albarda sobre albarda” Aldeak eta parteak, bai al dute bereizketarik? Eta ortik ere entzuten ditugu “Zonalde“. Eta “Industrialdea” ere bai. Eta itz ederra badaukagu ori adierazteko “ Olaeta”. Otxandio inguruan dagoen errixka baten izena ere bada)



- Propioa ..... Berea/Berezkoa
- Eusko Jaurlaritzak bere Araudi propioa agertuko du. “Berea” baldin badu, “propio” orrek zer esaten dio esaldiari? Alegia “Berea” baldin badu, “propioa” izando du noski. Erderakada utsa, irasle on baten aotan: “Albarda sobre albarda”
- Ze polita !!! (erdal senaren kalko utsa) ... Bai polita !! (;Qué bonito!. Berriz ere erbiarena)
- Modu onetan ..... Onela
- Titular moduan aritu zen ..... Titular jokatu zuen
- Atentzio deitu dit (Me ha llamado la atención ?). Bitxia edo berezia irudi zait/ Begiz jo dut. (Beste esanaia ere izan dezake. “Amonestar” Euskaldun peto-petoak esaten dute: Kargua artu dit)
- Erritmo aundiko partidua ..... Joko bizikoa
- Prezioak txikitu ..... Gutxitu/ Merketu
- Konsulta modukoa ..... Galdera (eta kito). (Eta “modukoa” baldin bada ez da galdera, baizik eta antzekoa. Batzuetan ere entzuten da” Irakasle bezala egon zen” Beraz, ez zen irakasle. Bestela “Irakasle egon zen” naikoa luke)
- Estreineko (Estreno) ..... Leenengoz/ Asierako
- Momentuz (De momento ?) ..... Oraingoz/Oraín artekoa. (Gaiñera nire uste apalez, gaztelaniaz ere “de momento” ori alperrikakoa da.(La Real gana 2-1. Y si no sería: La Real ha ganado 2-1)
- Jarrera propia izan nai dute ..... Beren jarrerari eutsi nai diote
- Gustura ..... Nik “gustora” entzun izan dut beti, gure zaarregandik. (Astua esaten da, baiña ez” astu” beltza. Aozkoan “ etxia” esaten dugun bezala, baiña ez “Etxi polita”)
- Il edo bizi ..... Il ala bizi (Bi esan-kizunen arteko aurkakotasuna. Il edo bizi berriz berdintasuna). Biak naastuta erabiltzen dira.
- Aste onetan bertan ..... Aste onetan (Naikoa da, ez du zeas-tasun geiagoren bearrik). Ez dut esango gaizki dagoenik, azken bo-ladan ordea, “bertan” erabilleraren maiztasuna izugarri ugaritu da. Geiegizkoa ez ote da ?

(Lapurtera zaarraren bidea utzi, or porrot egin da, eta laisterrean, ito larrian, gipuzkeraren bidera jo den ortan, jatortasunaren billa, asko dabil itzak sar-tzen zer esaten duen ere ez dakiela. “BERTAN” asko ugaritu da.

Eta “EGON” ere” berdin, emen IZAN-en orde. Luze joko luke lantxo onetan arazo oriek zeaztea eta aztertzea. Gramatikak ere ortxe dagoz). Eta ain zuzen Euskaltzaindiaren gramatikak. Eta azken batean Euskerazaintzak lengo bideari eusteari esaten zuenean, euskera osoari eustea esaten zuen. Alegia ez zegoela “urbano eta funtzionalaren” bearrik. Eta gaurko gramatikariak ain zuzen ori izaten dute gogoen, eta beren azterketetan ez dituzte euskalkiak baztertzen, oso gogoan artzen dituzte.

Besterik da maillegoena teknika eta zientziari gagozkiolarik.

### 3.2 . Atala. EUSKAL SENA (JARRAIPENA)

Jarrai dezagun beste zerrendatxo batekin:

**Dema.** Azken aldian ere entzuten ari gera: “Realak **dema** izaten duela” Orain arte “Realak jokatu egiten zuen norgeiagoka”. Ara zer dioen iztegiak:

**Dema:** “Abereekin egiten den leiaketa eta apustua”

Pirineo kontran ..... Pirineo inguruan. Pirineoaren malkarretan

Ez da bildurtzeko modukoa izango ..... Ez da bildurtzekoa izango

Prezio baxua ..... Merkea/Merke-merkea

Tajonar (Gaztelaniaz) (Eta “Taxoare” euskeraz al da ?, fonetika aldatuta. Itzulpenik bear ote dute izen oriek. Berezko euskal izena dutenetan: Pamploña / Iruñe, Agurain/Salvatierra, ea, esate baterako, azaldu egin bear, noski). Agurain ordea ez da Salvatierraren itzulpena. Baizik eta, Salvatierra izeneko Erria. Naparroako Santxo Jakitunak sortu bait zuen Agurain izeneko gain toki batean, Arabako Lautada orretan.

- (Bada Aralarreko basoan, toki zoragarria “Pago-Mari” izenekoa. Ustez” “asko zekiten batzuren batzuk” erderazko itzulpena jarri zioten, onela: “El Haya de la Señora María”. Barka ezaiguzue, aritik irten bagera ere. Edabideetan entzundakoeekin ari bait gera. Adierazkorrak direnez, orde, adibide oriek, eta zenbateraiño sartuta dagoen nagikeria eta lañeza gure izkuntzaren inguruan ikusteko, zillegi begigu, bide alboratze au).
- Euria beste modukoa egin dezala ..... Euria bestelakoa egin dezala
- Arratsalde partean ..... Arratsaldean. Ez al naikoa?
- Maximoak eta minimoak
- Ar ezazue iztegi bat eguraldiaren berri ematen duzutenok).
- Martxan jarri ..... Asi/ Ekin/Abiatu
- Plana ..... Egitasmoa/Egitamua

- Egin kasu ..... Erne/ Entzun/Gogoan Bestea: Ori duk ostikoa !! “Hagan caso”. Itzez-itz itzulpena. Euskal senaren jabe dena, euskeratik abiatzen da).
- Larrialdi kasuan ..... Larrialdian/ Larrialdietan
- Gogoratu (Leen partizipioa da) ..... Gogoan izan
- Galdetu (Leen partizipioa da) ..... Galde egin
- Esforzua ..... Egiñalean/ Leer bizian
- Aproposa ..... Egokia/Aukerakoa
- Zailtasunak erasoan aritzeko ..... Zailtasunak erasorako
- Konforme ..... Ondo da/Batera/Ados
- Ikastaldia martxan jarri ..... Ikastaldiari asiera eman
- Eguraldi txarra Bilbo parte onetan .. Eguraldi txarra, emen, Bilbaon
- Arratxa txarra ..... Aldi txarra/ Bolada txarra
- Gunea erabiltzearena. Itz au azken batean “Unea” besterik es da eta (G) lotura izkia, edo epéntesis sorteen duena. Eta “Gunea” erderazko “Zona” –ren itzulpen gisa darabilte. guribeste itz batzuk ere bada-tozkigu gogora: Tokia, legua, esparrua.
- Zona alde: Eta gaztelerazko “zona” ez al da euskerazko “alde”?
- Euskal Erriko biztanleek kontsumitzaile modura. Eta zergatik ez ¿Euskal Erriko kontsumitzaileek?
- Jardun. Ez degu entzuten.”Aritu” itzak jan dio zenbaiteren aotan bere legea.
- Irakasle gisa. (Irakasle gisa baldin badabil, ez da irakasle. Alegia irakasle izan gabe leku ori betetzen ari delako. Naikoa da Irakasle dabil esatearekin
- Itz ardua. Pelotariak eta futbolariak ere itz ardua. Eta batzuk eskuz eta besteak ostikoka izaten dute jarduera. “CITA” erderatik abiatuta adierazi bearra zegoen eta, denerako Itz ordua erabiltzen dute
- Realak “demak” demak izaten omen ditu. Demak orain arte abereen leiaketak izan dira. Eta Realak partiduak JOKATU egiten ditu, ez jolastu. Jolasa eta jokuaren artekoan bada alderik.
- Euskara urbanoa eta funtzionaletik asi eta, eta erri txikietako nolabaiteko jatortasun baten billa, orain azpieuskalkiak sartzten dituzte batzuk, euskara literarioa bear den tokian. Ona batzuk: “Fortunatu. Suelto jardun ziren “Ittungo” “Iturengo”. Bere araudi propioa (Bere Araudia)

- Eta nabarmen, aozkoa artu euskera jaso bear lukeen tokian. Eta badakigu oguzkerak asko murrizten duela itzen ebakera. Eta ortik gaur egungo joera euskera idatzian ere: Arroa, Zestoa, Leioa, Ittungo. Eta bide ortatik orrela bearko luke: Biot (bear dot). Beti esan izan da aozkoaren murrizketan elkarrizketan. Eta idazterakoan, euskera literarioan, alegia: etimologia jarraitu.
- Joan zen igandean, Anoeta pelotalekua lepo zegoen. (Gure zarrak “leporaiño” esaten zuten). Gendetza itza ere badugu ori adierazteko.<sup>o</sup>
- Esaterako. (Gure zarrak esate baterako) esaten zuten.
- Bere Araudi propioa. Ez al da naikoa “Bere Araudia” esatearekin?
- Aire librean ..... Barruan eta kanpoan
- Eta bizkaierari dagokiolarik. Noizean bein:”Giro itzela, barikue, Otxandixo, leixe. Eta gero lasai, lasai. Orrekin bukatzen al da bizkaiarekiko arazoa? Eta aditzarena?.
- 2gn. Postuan Orio. (Zergatik ez? 2gn. Orio) –garren atzizki orretan bait dago delako “postua” guretzat. Gaztelaniatzko “puesto” itzultzeagatik. Ta euskal senarena...
- 4 minutura / erderazko A itzuli en –RA atzikia sartu. (leengo zarrak 4 minuturen barruan esaten zuten).
- Esaterako. (esate baterako esan bearrean)
- Itsaontzia ondoratuta, 3 gizon desagertuta. (3 gizon galduta daude)
- Plaza lepo. (Plaza leporaiño). Gendetza. Bertatik bertara. (Batzuetan “Bere aurrera” bear lukeenaren orde entzuten dugu).
- Agintari moduan (Agintari moduan. Agintari den aldetik)
- Asteburu ederra pasa (Aste buru ona. Edo aal bada “on-ona).
- Donostiako Parte Zaarrean edo Alde Zaarrean. (Leengo euskaldun peto-petoak, DONOSTIAKO ZAAR ALDEA, esaten zuten, Goazemazue **Zaar aldera. Zer alde dago? Zaar ori Donostiako alde bati gagozkiolarik, Izena da. Eta alde zaarra esaten dugunean, Zaar ori adjetiboa. Era orretan: Usurbil Aldean esaten dugu. Edo Orio aldean, Gros aldean, Amara aldean, e.a..**

### 3.3. EUSKAL SENA

#### GEIEGIZKOAK ETA OKERRAK: Onoko auekin:

- **Bertan.** “Gau Labriten partidua, eta bertan egongo dira. (Egoten badira ez dute partidua asi ere egingo) (Guk orrela jarrito genuke: Gaur Labriten jokatuko dute: Titin eta Pascualek, Xala eta Olai-zolaren aurka). “Bertan” eraste ori zertarako?. Non bestela, bertan ez bada? Zer erasten dio zeaztasun orrek? Era onetara berriz ondo: Gaur Iruñean jokatu eta bertan afalduko dute. (Bi ekitaldi Iruñean bertan.

“Aste onetan **bertan**. Aste onetan eta, kito!

Eta “**bertan**” erabiltzeko alperrikako maiztasun aundiarekin, aldi berean, eraskusleekin zer egiten ari dira? Edo zer ez dute egiten?. Bear direnenan sartu. “Emen-or-an”

Batzuetan indartzearenak auek esatera beartzen gaitu: “Emen bertan- Or-An bertan. Bestela ere zeazten ez bada, “Bertan” soillik, esaten bada, esatariaren lekua ere izan liteke.

- Eta ez: “Gazteizen bertan. Gaur bertan. Biar bertan”. Maizegi entzun ditugu orrelakoak. Jakin egin bear euskal senak noiz eskatzen duen zeaztasun ori. Ainbestetan bearrezkoa denik ez dirudi.

Beste adibide batzuk: “Tolosan bertan jokatuko dute “ ..... (Bai al dago, bertan ez den beste Tolosarik ?) “Tolosan jokatuko dute ( eta kito)”. (Besterik da: “Tolosan jokatu eta BERTAN bazkalduko dute)” Alegia, bi ekitaldi toki berean.

Beste batzutan onela erabili bear izaten baita da: “Emen, Or edo An BERTAN”. Erakusleekin. Eta bestela zeaztasuna naiko illun gelditzen da. Esatariak “Bertan” besterik ez badu esaten, bere lekua ere aipa lezake.

Eta oraingo joeran, erakuslerik oso gutxitan entzuten dugu. Eta orien orde BERTAN, askotan.

“Bertan”. Erakusle indartua ere bada. Jakin egin bear euskal senaz noiz erabili. Gaurko joera geigizkoa deritzaigu.

- **Aritu eta jokatu.** Eta askotan beste oker bat: ”Aritu eta jokatu”. Adibidea: “Reala atzo arratsalde Zubietan aritu zen igandera begira, Osasunaren aurka jokatzeko. Zubietakoa ariketa utsa da. Eta igandekoa “Jokua” norgeiagoka, alegia

Esaerak dioen bezala “Berez bear Billabonakoa” edo “Zuretik ezpala”. Euskerari dagokionez , ikasteaz gain, SENA bear.

Azken batean euskal senarena ez ote?, Alegia esan bearrekoak adierazteko gazteleratik abiatu eta itzez itz itzuli askotan. Euskal senetik asi bearrean gaztelera gurutzatu gabe.

- Z/S/X eta TZ/TS/TX ..... Batzuk ez dituzte bereizten. S-ren ordeaz Z. Eta Z bear duenean S, oguzkatzen bait dute.

**Eta Badira urte batzuk auek jaso genituenetik. Geroztik asko zuzendu dira okerrak. Egiari zor zaionez gero ordea, esan bearra dago, zaparrada ori jasotzen ari den aterkia, GIPUZKERA dela. Eta or 1968an Euskera-zaintza ren teoria nagusitu da. Euskera bizia, erri euskera dela sustraia. Batua egiteko aal baldin bada, edo beste edozertarako. Eta beraz, ez zegoen “euskera berri” baten sortu bear ori. Orduan euskera” urbanao eta funtzionala” deitu zioten. “Garoz eta gorotz usaikoa baztertuko zuena”. Eta aurreko lerroetan ikus daitekeenez, ara or emaitza!**

### 3. 4. Atala. Euskal sena

#### ZERGATIZKOEN EDO KAUSALEN ESALDIEI BURUZ:

Ona esaldi oriei dagokien ezaugarriak.

##### ATZIZKIAK

- LAKO
- LA ETA
- ETA
- NEZ
- NEZ GERO (-n EZKERO)
- TEARREN
- TEAGAITIK

##### AURRIZKIAK

- ZE
- ZEREN
- ZEREN
- EZEN BADA BA ZE
- ZEREN ETA
- ZERGAITIK

Erne entzule, eta oar zaitezke, askoren aotan, zergatizkoen esaldiak, geietan – DELA ETA, esatera mugatzen zirela. Eta utsune orietan, batez ere oso gutxitan entzuten genuena, -LAKO atzizkiarena, eta orixe da ain zuzen “kausal” deituriko zuzenena.

“Osasuna arazoak dituela medio”. Zergatik ez ȳ Osasuna arazoak dituela eta ... (Eta beraz : –dela eta, bear lukeenean “medio” jartzen dute.

Beste bat aipatzekoa: IZAN ERE. Esaera au esan dena biribiltzeko, edo esaten dena esan berri denarekin lotzeko esapidea. Bein baiño geiagotan bear ez da uste dugu entzuten dugula, ez bere zentzuan alegia. Azken aldiko bolaran ordea, leen kontuan artu ez zirenak, orain nolabait ere sartzea nai, jatortasun baten billa. “Euskera urbanoa eta funtzionala” egin zen garai artan kontuan artu ez zena. Eta ori nolana ezin liteke egin. Batzuren aotan entzun ditugun zenbait esaerak ez dute zentzurik itz egindako testu inguruan. Euskal senaren bearra. Eta or H-rik gabe idatzi zuten maisu aundi aien liburuak ere irakurri egin bear, jatortasun baten billa, euskal senaren barruan, ikasi nai bada.

### 3.5. Atala. EUSKAL SENA

**Bein baiño geiagotan aipatu dugun “Euskara urbano eta funtzionalari” buruz gertatutakori, batzuk “euskerantoa” deitu zioten. Eta ez zuten arrazoi makala. Ona adibide batzuk:**

Gure Liburu Gorrian, esaldi batzuk zerrenda luzexamar batean agertu genituen, bere garaiean, 1989-1990 gn. urtetan Euskerazaintzako idazkaria izan zen Jesus Gaztañagak (G.B.) jasokoetatik. Ez dugu eztabaidarik nai ainbeste urteren buruan. Baiña ondoren dijoazen adibideak, Euskerazaintza sortzekoaren zergatia ere bada, neurri aundi batean.

- Zerbait egiteko asmoa ezertan gelditu da. (Ori ez da euskera “Ezer-tan ez dira gelditu...)
- Ez da ezagutzen artu duten erabakia. (Araoza ez da “ezagutzea”. Jakitez da baizik)
- Laiño txikiak izango dira batez ere baillaratan. (Baillaran ez, baiña, aranetan, ibarretan, mendarteetan).
- Ni naiz INFRAKTOREA.
- Sufragio unibertsala.
- Ezkerreko frente anplioari eman diote baiezkua.
- Egongo zara geldi? (Euskeraz pentsatzen dakianak, onela esango luke: “Geldirik egondo al zera?”).

- Metro bat eta 65 zentimetro neurtzen du. (Nork neurtzen du, eta zer neurtzen du? Obeki zitekean onela”Metro bat eta 65 zentimetro ditu luzeran).
- Bederatzi komisio lanean dauda. (Aspertuko dira orratik!, “dauden” oiek lana egingo duten zai daudenak).
- Giro tensoa Unibersitatean.
- Beraitako zuzendarien baimen ESPRESUA lortu bear da.
- Inkompatibilitatearen Komisia.
- Istripu bat zegoela ta joateko. (Nola EGOTEN ote dira istripuak eta ez-bearrak, zutik ala etzanda?).
- Gipuzkoan obrak daude ainbat errepidetan. (Nola EGOTEN ote dira obrak?).
- Sumendia 20 urtez lo izan ondoren. (Ainbeste aldiz oker erabilli izan dute EGON aditza, eta ain zuzen EGON esan bear zutenean, orduantxe ez. Esaldi ortantxe bear zuan LO EGON).
- Aste buruetan trafiko aundia DAGO. (Gutxienez ere joan-etorri aundia DABIL, esan balute, gaitz erdi zitekean).
- Txosten konparatibo bat bidali die Lurraldeak.
- Gaur izan da Urumearen jaitsiera. (Urumea ibaiak lengo tokian jarraitzen du, iñora jaitsi gabe, nik dakidanez. Besterik da, urak jaitea, eta txalupak ere Urumea ibaian jaitea).
- Oizko bisitak jaso ditu (Nora jaso ote ditu?).
- Iru Sailburuen zesea erabaki du. (ZESEa oso polita da!)
- Ospe aundiz egin dute akto akademikoa.
- Orioko kluba, kantera kluba da.
- DAGOENEKOZ jakiñaren GAINEAN zaude agian. (“DAGOENEKOZ”, esaldi ortan zearo oker dago. ONEZKERO bear bait du) (“Jakinaren GAINEAN” baiño egokiago legoke JAKINEAN ZAUDE).
- Ez da kalte PERTSONALIK izan istripuaren ondorioz.
- Gurasoak ez dira arazo au duten KONSZIENTEAK.
- Extraterresteak inbaditu dute gure platoa.
- Moneta merkatuko aktiboetako inbertsio Fondoa.
- Bankuko Komenio Kolektiboa.



- Balantze bat faltseatu.
- Influentzien trafikoa.
- Hizkuntza kontsentsua pieza delikatua da.
- Karreterak kamioneruen piketeak blokeatuta.
- Aparta. Eta ez aparteko.
- Iadanik. Eta ez dagoeneko.
- “Carril” erderazkoa euskeraz esateko. Erraila entzuten ari gera. Eta Errailla “Rail “. Beraz ez da berdin “Rail carril. Eta guk, Bidea esate-rarekin, kitto! Edo errepide erdia moztuta geratu da.
- An-Or-Emen. Eta ez ainbestetan “Bertan”.
- Zaldi arraza autoktonoak. Eta zergatik ez Bertakoak. Ainbeste aldiz “Bertan” sartzen diguten bolara onetan. Askotan bear ez da.
- Azken aldian “Bertatik bertara” entzuten asi gera ( Primer plano), Jatortasun baten billa abiatuta, “urbanoa eta funtzionala” utzita, orrelako esaerak entzuten asi gera. Baiña geigizkoan ere bai. Bada norbait Astelena pelota lekutik, albistea ematen ari bada irratiz edo telebistaz, garbi dago “bertatik bertara” ari dela. Ez dago esan bearrik
- “Cita”. Erderazkoa euskeraz esateko, danetan eta danetarako “itz ordua. Erabiltzen ari zaizkigu. Beraz Realak. Pelotariak. Eta denak berdin. Zer egiten dure jokatu, ala itz egin?.
- Batzutan berriz “Jokatu” . Aritu erabiltzen dute batzuk. Eta gauza bat izaten da! “ariketa” bestea “Jolasa”. Eta oso bestelakoa “Jokoa”.
- Dema. Abereen arteko apustua. Orain arte. Realak ere orain ordea “Dema” izaten du.
- Gisa. Bear ez da. Irakasle gisa jardun bear badu batek. Irakasle ez delako izango da. Bestela Irakasle izendatu dute , eta kitto!.
- Jardun edo iardun. Bat zein bestea zero bazterturik daude, zenbait esatarriren aotan.

Azken bolaran, jatortasun batzen billa, edo, 45 urte igaro ondoren, “euskerako urbano eta funtzionalaren” garaiaz geroztik, orrelakoak ere entzuten ditugu:

- Leengo euskaldun zaar, peto-petoak, “euria goian-beean” esango zuketan. “Euria goitik-beera” Au entzun berri dugu ETBn. Erderaz “cortina de agua” edo antzekoa adiezteko. Gaiñera ez da ain erabilia izan. Geiago entzun izan dugu: Euri zaparrada. Euri jasa. Ori botatzea!

- IZAN. Aditz nagusi bezala, oso gutxitan erabiltzen dute. Eta orren ordezt: EGON, EDUKI, PARTE ARTU. Entzuten ditugu.
- Emankorra. Eta ez produktiboa.
- Emankortasuna. Eta ez Produktibidad.
- Ugaritasuna. Eta ez Dibertsitatea.
- Bezain pronto. Bezain azkar
- Ikusgarria. Entzungarria. Jakingarria. Eta ez danetarako “Interesgarria”.
- Kostari dagokionean 20 graduren buelta. Itsasertzean 20 gradu inguru.
- Elurra moduan egingo du.....Elurra egingo du (Elur moduan, iriña jartzen da Gabon Gaueko jaiotzan).
- Elurra 1000 metroan.....Elurra milla metrotan (mugagabea da, eta ez mugatua)
  - Aspaldiko partez / eta zergatik ez “Aspaldi ez bezala”
  - Deskalabrua (Nai duenak itzuli dezala)
  - Gure partetik / Gure aldetik
  - Obe esanda / obeto esanda, bada obe.
  - Kasu onetan
  - Parada
  - Tenperatuta baxuak
  - Maximoak
  - Prinzipioz
  - Izan ere/bertan/dagoeneko. (Batzutan bear ez da. Eta bestetan nolana)

Agian, adibideren bat, bein baiño geiagotan aipatua izango dugu. Barka bezaigute irakurleak ordea. Eta ez legoke ain gaizki, kontuan izanik, aspaldi xamar asitako lana dugula bilketa au. Eta urteen joanean, gaur egun ere, okerrak entzuten jarraitzen ditugunaren agerpena besterik ez litzateke izango.

Ala ere, ez ditugu jasotako denak azaldu. Luze joko bait luke guztiak azaltzea. Naikoa dela uste dugu, emandakoarekin.

Eta azken batean, Itzez-itx artuta eta itzulpen txar baten adierazpena besterik ez dira azaldu ditugun esaldi asko. Euskeratik abiatuta, euskal senez

esan bearrean. Bestelako orri, batzuk “euskeranto”deitu zioten. Norbaitek ere esan zuen ori zela “euskera batua”, denok ulertzekoa. “Euskera urbano eta funtzionala, garo eta gorotz usairik gabekoa”.

Atal au bukatzeko, ere esan dezagun, 1968an. asi zela “batua funtzionalaren” ekintza. Eta gaur 2013an. entzuten asiak gera, “Narbarmendu”, bestelako “Azpimarratu” ori baztertuta.

Orain 40 urte eta askoz ere leenagoko, gipuzkera literarioa, oiñarri artuta, BATUA dela esaten digute.

Amaika ikusteko jaiokak gera .....!

Eta azken esaldi orrek, ez du esan nai erderaz : “Once para ver nacidos somos !

## 4. ATALA

### Ondorio gisa

Joera txar orretan bazirudien, eskubide osoa artzen zutela batzuk, nai zuten erara itzak artzeko eta sartzeko. Azkue aundia sarritan entzuten dugu, “zeru goieneko euskal izarra”, esaten dugu mirespen aundiz. Eta zenbatek erabiltzen ote zuen, eta ote du, bere iztegia miresgarria?.

Badakigu ere guk azaldutakoa adibide batzutan, oso sarturik dagoela erriarengan. Aozkoan. Komunikabideetan ordea, ez ote luke jasoagoa bear izke- ra?. Emen aozkoa eta idatzirikoa kontuan izan bear.

1973 urteko zenbakien arabera, euskaldunak % 66 alfabetatu gabeak ziren. Eta orien artean ez da arritzekoa, naiz euskaldun peto-petoak izan, itzak erderatik nolanaiz artzea. Gaur ordea, zorionez ez da orrelakorik gertatzen; ikastetxeak eta gau eskolak lan mardula egin dute azken urteetan. Eta orre- gatik, iztegi eta gramatikarako zaletasuna aundiagoa bear ko litzateke, ba- koitzak aal duen neurrian, geroz eta euskera obea erabiltzeko. Zer esanik ez, euskera erabiltzetik bizi direnak.

Eta ezin aipatu gabe utzi bizkaieraren arazoa. ETBn, Bizkaian kokatutako telebistan, bizkaiera zearo bartertuta dago. 1970an, Luis C. Nuñez jaunaren “Opresión y Defensa del Euskera” liburutik onako zenbaki auek artu ditu- gu: 532.011 euskaldun omen giñan. Orietatik 200.040 euskaldunek gipuz- kera erabiltzen zuten, %37,7k. Eta 200.494k bizkaiera, % 37.6k. Lapurtera 22.970, % 4,3k. Eta azken onen antzera gainontzekoak.

Ipar Aldeko jakintsu bati entzuna dugu: “Bakoitzak bere euskalkia erabilli bear du, guk orrela erabiltzen dugu. Gero batua..... “Eta guk batu ori ikasteko, gaztelera asko xamar jakin bearra daukagu” Eta zer da euskera ba-

tua?. Gramatika bateratze lan batzuk egin dira. Funtsean ordea, ezin ukatu, batua izenarekin, azken batean, gipuzkera erabiltzen dela. Eta 1968gn. urteko batzarrean, gipuzkera osotua aukeratzea aurkeztu zutenak, baztertuak izan ziren.

Eta beraz, lapurtera zaarraren teoriak porrot egin du. Entzun berri ere badugu, irakasleek beintzat bi euskalki jakin bearuko lituzketeela

Analfabetoak aipatu ditugu. Alarik ere, euskal sena eta itz joskera eta aditza, eta aditzean, “ikakoa, Itatoa eta itanoa”!!!!, oso-osorik iritxi dira guregana, ainbeste urteren buruan, eskerrak gure aurrekoei. **Lantxo au obebearrez egiña dugu, apaltasunez beterik. Eta ez iñoren aurka Baizik eta gure zaar aien omenez, eskolagabekoak izanik, miraria baiño geiago ere badirudi, nola iraun duen euskerak, aiei eskerrak, gaurdaino.** Eta or ezin aipatu gabe utzi GURE BASERRIA. Aipamen berezia ere egin nai genieke gure apaiz eta fraile baserrikumeei. Etxean ikasitakotik abiatu, eta goi maillako ikasketen eragiñez landu egin dutelako, ama izkuntza. Euskerarik onena eleiz gizonengandik entzuna dugu. Baita ere 40 urte luze beltz-beltz aietan; ez bait zuten alboratu beren zeregiñetan.

Leengo adibide asko or azaldu ditugu. Egiari zor zaionez gero ere, esan bearra dago, gaur egun, asko txukundu dutela euskera, egunkari, telebista eta irratieta. Alarik ere, oraindik ortik gora egin bearuko lukete, eragiñik aundiena beraiek izaten bait dute erriarengan, batez ere euskera ikasten ari diranengan.

Bidezkoa ez dena, jatorriz ditugun itz eta esaldi motak, nagikeriaz bartertu, eta asma aala, bakoitzari bururatzen zaiona esan edo idatzi. Azken batean orrela bakoitzaren gabeziak eta eziñak sartu besterik ez dira egiten gure izkuntzan.

Aipatzen ari geran garai artan, “**euskera urbano eta funtzionala**” bear omen zen. “Garo eta gorotz usairik” gabekoa. Eta euskalkien sakontasuna alde batera utzirik “Euskeranto” antzeko bat sortu zuten. Ori izan bear zuelako EUSKARA BATUA. Eta On Manuel Lekuonari errespetua galdu zioten. Euskerantoaren ontziari ura sartzen zitzaolarik alde guztietatik. Gaur egun berriz, norabidea aldatu, eta GIPUZKERA DARABILTE, euskara batua dela esanik. Eta “batasun” orretan, BIZKAIERA, non gelditu da...?

Eta aurreko adibide orietan ikusten denez, gaur egun, baten batzuk naiko lan dute, gipuzkera menderatu ezinik.....

Ondoren, zillegi bekigu Euskerazaintzako sortzaillen zerrenda agertzea, orain berroi urte, oriek esan bait zuten, euskera batua, euskera bizitik abiatuta bear zuela. Erri –euskeratik alegia. Ori ordea ordungo batuzaleak,” garo

eta gorotz usaikoa” omen zen. Eta “euskera urbano eta funtzionala” sortze-ko ez omen zuen balio. Gaur berriz, bide ori aldarrikatu zutenak, bat baiño geiago, gipuzkera menderatu eziñik dabilta. Ori al dute gaurko “Batua”?

Aipatutako geientsu oriek, puri-puri zeudenean, sortua izan zen EUSKERAZAINTZA-EUSKERAREN ERRI AKADEMIA.

## EUSKERAZAINTZA EUSKERAREN ERRI-AKADEMIAK

### GEIGARRIAK

#### *EUSKERAZAINTZA. EUSKERAREN ERRI AKADEMIA*

1978an sortua.(Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena, eman zioten. (Declarada de Utilidad Pública).

Ikus B.O.E 45/1981 eta EE.AA. 96/1984)

**Kardaberaz Jakintza Bazkunako, bazkide batzuk sortu zuten EUSKERAZAINTZA- EUSKERAREN ERRI AKADEMIA,**

**Eta onela zioten:**

“1968an Arantzazun batuari buruzko erabakiak artu zirenean, Kardaberaz Jakintza Bazkunako bazkideek ez genuen onartu joera berria. Eta ondorioz Euskerazaintza Euskeraren Erri-Akademia sortu genuen, ordurarteko bideari eustsi naiean. Eta batasuna ebakuntza biur ez zedin, geiegizko presa larrian. Ori nola?:

Bada, Arantzazuko erabakietan, batuaren oñarritzat, lapurtera zaarra aukeratu zuten, euskal literatura zaarrean, geien erabilia izan zelako.

Geroztik berriz, “garo eta gorotz usaiko” euskera baztertu egin bear zela. Eta “euskara urbanoa eta funtzionala” sortu. Baziren ere esaten zutenak: Nor-Nori-Nork gure aditzaren berezitasuna kendu, latinizatuz. Eta sintasia-joskera ere aldatu, latinizatu. Gauzak erraztearren. Ondorioz, euskara mota bat sortu zuten, BATUA izenarekin. Ikus adibideak “Aka-tsak eta Erderakadak” ataleetan.

Eta or sortutako ekaitzaren babesia, azken batean GIPUZKERA izan da. ETB entzun besterik ez dago. Ori bai orain Gipuzkerari BATUA deitzen diote.

Ez zuten arrazoi makala izan gure Euskerazaintzaren sortzailleak. Ez al dute merezi: Begirunea? Aitorpena? Omenaldia?

Ona aurrean esandakoak sendotuz, adibide geiago:

## 2. AKATSAK ETA ERDERAKADAK. Jexux Gaztañagak jasokoetatik ( Euskerazaintzako Idazkari izan zen. G.B.)

1. “Ni naiz infraktorea....” (EITB, 1989-XI-26an) Zer ote da ori?.
2. “Ezkerreko frente anplioari eman diote baiezkoa”. (EITB, 1989-XI-27an).
3. “Bederatzi komisio lanean daude” (EITB 1990-XII-10). Aspertuko dira orratik! Lanean “dauden” oriek lana egingo duten zai daudenak.
4. Zerbait egiteko asmoa ezertan gelditu da (EITB 1989-IV-2). Ori ez da euskera. “Ezertan ez dira gelditu... Utsean gelditu dira... ”
5. “Itsasoan ekaitza dago (EITB 1989-IV-4). Zer egingo ote luke, baldin balebil Ez da egoten!!!. Ekaitza sortu da...Ekaitza dabil.. Indar artu du ekaitzak... ”
6. “Dagoeneko ez dute ezer aurkitu (EITB 1989-VII-24). Beti oker darabilte “dagoeneko” itza. Oraindik ez dute
7. “latinezko irakaslea (EITB) Ezurmamizko irakasle izango zen, noski , ez latinezko. Latiñe. latin izkuntzako irakasle...ko irakasle.
8. “Aurtengo neguarenak egin DITU”. Neguarenak egin DU, entzun izan dut beti.
9. “Ratxa onari eutsi dio Errealak”
10. “Gipuzkoan OBRAK DAUDE ainbat errepidetan” Nola. EGOTEN OTE DIRA OBRAK?
11. “Sumendia 20 urtez lo izan ondoren” (EITB 1991-VI-10). Ainbeste aldiz oker erabili izan dute EGON aditza, eta ain zuzen EGON esan bear zutenean, orduantxe ez. Esaldi ortantxe bear zukeen LO EGON.

Beraz, Kardaberaztarrak Euskerazaintza sortzeko erabakia artu zutenean, ez zen txantxetako gertatzen ari zena. Aurreko esaldi oriek eta aurrerago azaldutakoak “Euskal sena” izenburuarekin, lekuko. Eta orrelako asko eta asko zabaldu ziren.

Euskerazaintzaren ordungo jokaera zuzena egiaztatzeko, adibide gutxi oriek, naikoak izango direla, uste dugu. Azken batean gaur egun darabilten **gipuzkera**, “Euskera Batua” dela entzuten bait dugu.

Gure ustez, berriz, euskera batua, bizi-bizirik dauden euskalkien indarrean oiñarritu bear zela, genion. Ez ordungo “batuzalek” ziotenaren arabera, (ezin

zitekeela bazter guztietako izkera motak artu). Ez, ordurako aspaldidanik euskera literarioa zerabilten idazle askok, euskalki guztietakoak.

Kardaberaz Jakintza Bazkuna, 1924an sortua izan zen, Gazteizko Seminarioan, On Manuel Lekuona´ren zuzendaritzapean. Eta ordundik gaur arteraiñoko urte guzi orietan, eta beraz, ez onenetan, errian sustraitutako euskera lantzea izan da Kardaberazko bazkideen iarduna, eta aldi berean liburu ederrak eta mardulak argitaratuz. Sail bat aipatzearren, On Manuel Lekuona´ren idatz lan guztiak, 12 ale ederretan”.

## 2. GEIGARRIA. DENBORA EPAILLE

Euskeraren aultze ori, komunikabideetan oso kezkarria zela uste genuen. Jasoagoa bearko lukeela euskera, esaten genuen.

Itzulpenetan, berriz, nai baiño geiagotan, gazteleraren kalko utsak ikusi ginituen. Euskal sena neurri on batean menderatu gabe, nolabaiteko itzul-tzaile asko ibilli zen.

Gaur egun, 1968 Arantzazuko batzarraren ondotik, ainbat urteren buruan, denborak, “epaikari goren orrek” askotan gertatzen den bezala, ez ote die arrazoi osoa eman Euskerazaintzako sortzaillei?. Naasketa baten ondoren, GIPUZKERA DARABILTE, BATUA IZENAREKIN. **Eta asko eta asko, gipuzkera menderatu eziñik.**

**ETA BIZKAIERARIK EZ DUTE AIPATZEN ERE, ARLOTE GISAN EZ BADA. EUSKAL TELEBISTATIK MEZA BIZKAITIK DANEAN, ORDUNTXE ENTZUN AAL IZATEN DUGU BIZKAIERA LITERARIOA. BERRIZ ERE ELIZA AIPATU BEAR ON BIDEAN, EUSKERAREN ARLOAN.**

Emen aipatutakoen ildo orretatik, 1998an EUSKERAZAINTZAKOEK “LIBURU GORRIA” izeneko argitaratu genuen. Ortxe jasoak daude, luze-zabalean Euskerazaintzako arrazoiak.

Euskerazaintzako sortzailleak, oso ezagunak izan ziren beren garaiean. Gaur egungo askorentzat ziur asko ez ezagunak. Gerra osteko garairik zailletan aal zen neurrian ez zuten etsi, euskeraren alde beren jardunean. Zerrenda orretako asko apaizak ziren (G.B.). Beren ama izkuntza, baserrian artua zuten, eta goiko jakintzan oiñarriturik ez zuten etsi an, or eta emen erabiltzen.

Eta beraz, landu eta zabaldu egin zuten beren elizako jardunetan. Eta askotan, argitaratzen zituzten liburuak bere patrika txirotik ordainduta. Bat aipatzeagatik: On Bixente Latiegi jauna (G.B.) “Elizaren istoria”, euskeraz, luze eta zabal jasoaz, 12 liburu marduletan, 6.000 orrialde baiño geiago, ain-

bat urteetato lana, doain zabaldu zuen. Artu zituen laguntzak argitalpena ordaintzekoak izan ziren. Eta beste muturrera joanda, garai aietan, askok beren oizko lanean, uko egin zion euskerari, naiz euskaldunak izan.

**Eta azken batean, erri-euskeraren teoria ez al da nagusitu?**

**Eta beraz, berriz diogu: Euskerazaintzaren sortailleen teoria, ez al zen ori? Eta denborak, “Epaitegi goren orrek” ez al die arrazoi osoa eman?**

**Alarik ere, gauzak ez dira ain xamurrak. BIZKAIERA, bizi-bizirik dirauen euskalki indartsu ori, bada, bazterturik dago, ETBn, egunkarietan, aldizkarietan, leiaketetan, e.a. Edo gutxienez ez diote ematen bear lukeen adiña leku. Amaika ikusteko jaiok gera !!!**

**“Euskerazaleak”, gure elkarteak berriz, aurtengoarekin, 46. Ikastaroa antolatu du, euskera ikasketak egiteko bizkaieraz. Eta gaiñera iru mailla eta alkarrizketa. Goiz, arratsalde eta gauetan. Eta lau egunez asteoro.**

**Euskal Telebistak leku ematen dio, “Iparraldeko Orenari”. Bada uste dugu, “Bizkaieraren orduak” ere, bere lekua bear duela: Euskal Telebistan. Aldizkarietan, Irratietan, Literaturan, Leiaketetan, Bertsolaritzan, e.a.**

**Eta ez al da ankerkeria “Batua”ren aitzakiarekin, Bizkaierarekin egin dutena egiteko, zero baztertu. Erriari esker zutik dirauen euskalkia. Eta bizkaierak ere esaten den 6.000 urteren aintzinatasuna izan lezake noski???? Eta orain zenbait Euskalerriko agintarien joera makurra dela eta, lurperatu egingo ote digute?????**

### 3.GEIGARRIA

**Aipa dezagun, merezi zuen eta, asieran esandakoaz gain, zerbait geiago On Lino Akesolori buruz:**

**Kanpotar euskalari guzieri. LINO AKESOLOK.**

Euskerazaintza euskal idazle, irakasle, bertsolari eta iztunde langilleen bazkun bat da.

Bizirik diarduen euskera azkeneko urte auetan gutxietsi eta baztertua izan dalako, erriak gizaldietan zer erabilli dituan euskalkiak babestu eta indartzeko eratua dugu EUSKERAZAINTZA.

Azkeneko amabost urte auetan euskera idazteko araueri sortutako naaspillak kezkatzen gaitu, euskeraren zabalkundearen okerrerako izan dala uste dugulako.



**Euskera idatziaren batasuna egitea bearrezkoa dugu, baiña batasun au geiengoaren euskera bizia arturik eta bera osotuz, egin bear dala uste dugu.**

Batasuna egiteko, eunetik larogitamar (%90) euskaldunek oguzten ez duten “h” izkia euskerak ez du bearrezko. “H” izkia non eta nolatan erabilli bear dan ikasteak, idazkera alperrik zailtzen du geiengoak darabilzkien euskalkietan.

Idazten dakitenen saillak, atzerakada aundia egin du; ez atzerriko mintzairaren bultzakadaz bakarrik, gure errian bertan idaz-arauekin sortu dan naaspillagatik baizik.

Gauza auek egun auetako jardunaldietara atzeritik etorri diran euskalarieri jakin arazi nai dizkiegu, EUSKERAZAINTZA-ren kezkek Euskalerrian oso zabalduak diralako.

Gutun onen bidez, zuen euskerari buruzko asmo eta ikerketa lanagatik eskertzen zaituegu, eta gure artean egun onak igaro ditzazutela opa dizuegu.

Atzerriko euskalarieri gure ikuspegiak zabalago ezagun arazteko, eta gure kezkeri buruz zuen iritziak entzuteko ere, atsegiñez jarraituko genuke zuekin arremantetan.

**Gernikan, 1980-VIII. 25**

**LINO AKESOLO (Euskerazaintzako Leenengo leendakaria)**



# BERE BIZITZA ETA LANAK.



1911. Jaio: Diman (Bizkaian).

1991. Zendu: Bilbaon.

1926. Karmeldar jantzia artu zuen

1934. Begoñako Karmelon apaiz egin zen.

1937. Atxilotua. Karmengo Argia aldizkariaren zuzendari izatea egozten zioten. Fiskalak esana; “hasta el título es separatista”. Azken batean ori “Excitación a la Rebelión” izan omen zen. 12 urteko kartzela eskatu. 16 leperatu. Eta 3 beteta atera omen zen. Gizarajoa!

**Bere biografiaren, laburpentxo bat azalduko dugu.**

Ikus dezan gaurko gendeak ere, zein maillako euskaltzale eta jakintsua izan zuen Euskerazaintzak bere leenengo leendakaria.

Lino Akesolok, erabilitako gaiak: A) Euskera, euskal literatura eta kritika. B) Euskal testuen eta euskal idazleen ikerketak. D) Istegigintza. E) Isteria. F) Teologia eta liturgia. G) Beste izkuntzetako liburu literario, istoriko, teologikoak, e.a. Gaztelaniara itzultze lana.

**Menderatzen zituen izkuntzak:**

Bere ama izkuntza euskera. Gaztelania. Eta beste lau bat izkuntz.

**Bere Lan Guztiak:**

Lino Akesolo. Idazlan Guztiak. 2 liburuetan jasoak 1539 orrialde osatzen dira.

Julen Uzkiak liburu orien prestatzailleak onela dio: “Sarrera onen sail onetan urtez urte aurkeztuko dogu A. Lino Akesolo non zer idatzi dauan bere bizian. Bibliografia lanetan 328 titulu ditugu. Aldizkariak: 281 artikuluraino aurkitu deusaguz”.

## **Arremanak:**

Esanguratsuak ziren pertsona geienekin izan zituen arremanak: Antonio M<sup>a</sup> Labayen, Antonio Zabala, Hipolito Larrakoetxea, Julen de Yurre, Iokin Zaitegi, Karmelo Etxenagusia, A. Berriotxo, Norbert Tauer, Justo Mokoroa, Orixe eta beste.

Begoñako Karmelon. Irakasle eta liburuzain (1948-1991). Tartean Iru-na urte emango ditu Donostian (1969-1972) eta Markinan (1972-1975) priore karguan.

## **Euskerazko erakundeetan partaide:**

1964. Bizkaiko Elizbarrutiko Liturgi Batzordeko.

1978. Euskerazaintza sortuz zenean. A. Lino Akesolo autatuko dute buru.

## **Bere lanak eta jarduerak. Aipamen geiago:**

Euskeraz: Bizkaieraz eta Gipuzkeraz. Idazkera aparta. Bete-beteko euskal senaz, eta goi maillako euskera jantzia erabiltzen zuen.

Eta lankide onoko auetan: Real Sociedad de los Amigos del Pais, Kardaberaz Bazkuna, Itzultzaillen oorezko bazkide, Karmel, El Diario Vasco, Zeruko Argia, Sasaki-Naski, Zer, Goiz argi, Jaunaren Deia, e.a.

Erabillitako gaiak asko: Euskera. Euskal literatuta eta kritika, Euskal testuen eta euskal idazleen ikerketak, Iztegitintza, Istoria, Teologia eta liturgia. Beste izkuntzetako liburu literario, istoriko, teologiak, e.a. gaztelaniara itzultze lana.

Bada, mailla onetako jakintsua eta apaiz saiatua, Euskerazaintzako leengo leendakaria izan genuen.

**EUSKERAZAINTZA**  
**EUSKERAREN ERRI AKADEMIAREN TXOSTENA.**

## 4. JAKINGARRIAK.

### LIBURU BATZUREN AIPAMENA:

- **ON JUSTO M<sup>a</sup> MOKOROA.**
- **ORTIK ETA EMENDIK. REPERTORIO DE LOCUCIONES DEL HABLA POPULAR VASCA.** 3.600 orrialdekoa. 2 aletan. 90.000 lokuzio. (Labayru-Eusko Jaurlaritzza-Etor)
- **Il zeneko agirian onela azaltzen du: Escolapio.** Miembro de Euskerazaintza y correspondiente de la Real Academia de la Lengua Vasca 1990ko Azaroaren 11ean. Tolosan jaioa zen 1901ean. 1924ean apaiz.
- **EGIAREN BILLA. ZENTZUZ ETA GIZABIDEZ.** Justo M. Mokoroa, Xabier Goirigoltzarri.
- **GENIO Y LENGUA.** Por Ibar.

### ON MANUEL LEKUONA.

Oiartzunen jaio zen 1894ean. Apaiza.

- **IDAZLAN GUZTIAK.** Kardaberaz bilduma. 12 ale ederretan. 6000 orrialde inguru. Gai batzuk aipatzearren: Aozko literatura. Euskal etnografia, Euskeralogia, Arte izti, Istoría, e.a. Gai batzuk zeaztuz: La métrica vasca. Gazteizko Eliz-Barrutiko Kristau-Ikaskidea. La poesía popular vasca. Gabon kantak, Literatura oral euskérica, Eun Dukat-antzerkia, Del Oiartzun antiguo, Zigor, Operaren liburuxka.
- **Kardaberaz Jakintza Bazkunako sortzaillea.** 1924ean Gazteizko Seminarioan. Eta or eragillerik sutsuena eta euskal idazle berrien sustatzaile.
- **Euskaltzain Osoa izan zen 1949az geroztik.** Eta Euskaltzaindiako leendakari 1966-70 bitartean
- **Lankide bere lanetan: Liturgia euskeratu zuen.** Revista Internacional de los Estudios Vascos, Euskalerraren alde, Eusko Folklore, Euskera, Egan, Boletín de la Real sociedad de Amigos del Pais, Euzko Gogoa, El Bidasoa, Rioja, Oiarso, Príncipe Viana, Berceo, Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio Urkijo”, Munibe, Kardaberaz Bazkuna, Jaunaren Deia, Aranzazu, Arantzazu, Estudios de Deusto, Gure Erria, Fontes Linguae Vasconum, Cuadernos de Etnografía de Navarra, Cuadernos de Sección “Izkunza eta literatura”, Artes Plásticas y Monumentales de Eusko Ikaskuntza, e.a.

- Bere euskeraren aldeko joerak, 1936koa gertatu zenean, ekarri zizkion ondoezak: (1978ko Iraillaren amazazpian elkarrizketa bat azaltzen diote, Donostiako “El Diario Vasco” egunkarian, eta ortik jasotakoak ditugu ondoren aipatuko ditugunak):
- Por qué se escondió Ud?.
- Me habían fusilado a dos hermanos. Uno cura como yo, más joven que yo. Me lo cogieron, me lo llevaron y me lo fusilaron a Martín. Está enterrado en Usurbil. Del otro que era soltero, ni siquiera sabemos dónde está enterrado.
- Pero, ¿por qué? ¿Eran gudarís?, capellán de gudarís, decía misas en campaña?.
- Nada- Nada. Tenían las fichas hechas de antemano.
- Yo estuve oculto 4 años en un convento de Lasarte. Y 14 años confinado en Calahorra. El servicio lo pagué escribiendo monografías de la catedral y dos parroquias.

Elkarrizketaren bukaera aldian. Bada, mailla oneko gizona, apaiza eta euskaltzaleari, auxe gertatu zitzaion gure artean, euskaldunon artean:

Euskaltzaindia y las “haches”

- Usted ha sido presidente de Euskaltzaindia. ¿Cuándo dejó la presidencia?
- Los “hachetistas” me echaron valiéndose de un panfleto anónimo.

Azken oarra:

Egiari zor zaionez gero, aitortzen dugu, Telebistakoa aipatu dugula, soilik. Irratian, Euskadi Irratian, oroar, euskera ona entzun izan bait dugu. Gipuzkera noski?. Eta gaur egungo Telebistan entzuten dugun euskerak, alde aundia du, or azaldutako leengo adibide aiekin. Baiña gaur egungoa, gipuzkera da noski, ala ez ?

Izango du gure lantxo onek ere utsegiñik eta okerrik..... Beraz, ondo esanak gogoan artu, eta arren, gaiñontzekoak barkatu. Lantxo au, ordea, uste dugu merezi zuela azaltzea, euskeraren alde, ainbat lan egiten zutenen aien goratarretan. Urte beltzenetan ere bai, laguntzaren ordez, zigorra jasotzeko arrixkutan, batzutan. Gaur batez ere Euskerazaintzaren sortzailleak aipatu nai izan ditugu. Eta sortu zuteneko artan, gertatzen zena, delako “batasunaren” inguruan.



**On Manuel Lekuona-ren eta berak sortutako Kardaberaz Jakintza  
Bazkunaren bidetik, onoko auek sortu zuten  
EUSKERAZAINTZA- EUSKERAREN ERRI AKADEMIA.**

*Agirre, M<sup>a</sup> Dolores*

*Akesolo, Lino*

*Arostegi, Luis*

*Arrinda, Anes*

*Arzelus, Amale*

*Azurtza, Joxe Joakin*

*Barandiaran, Gaizka*

*Eizmendi, Iñaki (Basarri)*

*Elosegi, Jesus*

*Gaztañaga, Jesus*

*Jakajortajarena, Txomin*

*Kerejeta, Jaime*

*Latiegi, Bixente*

*Mokoroa, Justo M<sup>a</sup>*

*Olazar Martin*

*Onaindia, Alberto*

*Onaindia, Santi*

*Oñatibia, Dionisio "Dunixi"*

*Oñatibia, Jon*

*Oñatibia, Manu*

*Orbegozo, Joxe Agustin*

*San Sebastián, Josemari "Latxaga"*

*Solozabal, Paulin*

*Sukia, Angel*

*Urrestarazu, Andoni "Umandi"*

*Urruzola, Estanis "Uxola"*

*Yurramendi, Felipe*

*Zatarain, Anborsi*

*Zubikarai, Augustin*

*Zubiri, Iñaki*

**Aitorpena. Agur eta oore! Omenaldia.**

**EUSKERAZAINTZA  
EUSKERAREN ERRI-AKADEMLAK**









**EUSKO  
IKASKUNTZA**

# Eusko Ikaskuntzaren V. Kongresuko kronika

## **EUSKO-ERRI-ERTIA**

### **(Eusko-Ikaskuntza-ren Udara'ko Ikasiel dietako itzaldiaren zati bat)**

Erri-ertiak zenbat eta zenbat agerkeria izan lezazken, ezin esan liteke. Gu-txiena uste degun gauzetarano erri-ertia erixten da, bizitzak ditun alde eta aldi guztietan erriaren ertizaletasuna agertu liteke.

Baño guk emen guztizat mintzatzerik ez daukagu; nagusienak, ezagunena-k bakarrik azalduaraziko ditugu; eta bakoitzagatik ez degu luzaro itze-gingo, batetik, betarik ez degulako bestetik itzaldi edo alkarrizketa ontarako olako gairik artu ez degulako.

Izendatuko ditut bada, eta beratzaz zerbaitxu esango dizutet.

Alde batetik, margotze, lerrotze, zur, arri ta burnietako koxkatze eta lan-tzeakin sail aundi bat egin genezake.

Beste bat, lengoan antzeko xamarra, eule lanakin, eun, zapi, jantzi, soñeko.

Beste sail aundi bat soñu eta musika-gaiez; bere barrenean artuaz euskal-dunen kanta ta abesti zarrak, txistu ta txistulariak, txirula, alboka eta sendi ortarakoak. Musika zerbait eta elerti (literatura) gaiean. Bertsolariak eta goitizlariak, bertso-paperak eta bertso-berriak deitzen diranak.

Beste sailean dantzak, dantza mota guziak, ain ertitsuak; euskalerrian er-ti-agertze aurren-aurrenetakoa dana.

Beste zati aundi bat berriz edesti eta euskalerriko kontu zarrak, euskal-elerti antziñakoa izango litzake.

Eta oraindik usten ditut beste erti-agertzak ugari.

Ikusi dezazute bada zenbaterañoa dan jakintza onen gaia. Nik izendatu dituan oitako zati txikienakin egun guztia izketan aritzeko naikoa genduke.

\*

Artu zagun bada lenengo izendatu degun saila. Margo, lerrotze, koxka ta tala lanak, irudi lanak. Erderaz oiei guztiei deituko litzaieke «Artes plásticas».

Erri-erti mota ontan gauza bat azaltzen zaigu lenengo, au da margorik ez izatea; izate ezkeroz margoa, kolorea, lurrez egindako gauzetan (cerámica) ta oial, zapi, ta jantzietan izan liteke. Beste gauza oitan margoaren billa ibilli izandu naiz baño ez det arkitu; orrek zerbait esan naiko du; beste erriak ba dira, Amerika aldean eta indio artean erri-erti lan nagusienak margo lanak diranak, baño euskalerrian ez.

Sail ontan gauzarik nagusiena koxkatze eta talalanak dirá; bestelako irudi edo «escultura» rik ez da gure errian erri-erti-lan bezela ezagutzen.

Tala-lana edo koxkatzea da euskaldunak geiena eginduana; era guztietara ba dira, bai zuran, bai arrian, bai burnian, txulaz, koskatuz, irudi eta antz askoetara, lerro biribillez, lerro zuzenka, izaren antzera, eguzkiaren irudiaz, eta asko-ta-askoetan gurutzea agertuaz, koxka txikiagoz lerro tartea beteta.

Koxkatze edo tala-lana, nik bezin ongi guztiok ezagutzen dituzue, tresna eta gauza guztietan arkitzen dira, eta geienean itxura berdintzakin. Zuran, etxeko kutxa, mai, aulki, iruten eta beste lan guzietako tresna geinetan, iri ta bei-ustarrietan, argizaiola eta beste askotan. Arrian, etxetan ate-gaño-ko armari, eta ormaetako irakurgai ta apaingarrietan; il-erri eta il-obietan oroigarri leno jartzen ziran arri landuetan. Burnietan, berriz gauza askotan, asi ateko serrala eta txirrikak, sukaldeko su-burni eta su-aurrekoak, laratza ta krisalu eta guztien gañetik etxe-gallurreko asta-zaldian gañeko abe ton-torrean aize-orratza gain-gañean Gurutze-santua bere beso zabalen azpian etxe guztia gordeaz agertzen dala.

Tala gauza oitan beste ikusgarri bat ere arkitzen degu. Beiñere lan oitan gizonaren irudirik ez dezute arkituko; aureskuba dantzatzen gizon ta emakumien irudiak batzuetan agertzen dirala badakit, baño olakorik ikusten dezutenian kutxa zar euskalduna ura ez dala, lan ura eusko erri ertia ez dala, esan lezakezue. Gizonaren irudirik eta ezta abere ta animalienik ere ez da arkitzen; izate ezkerotan egaztiren bat, uxua izango da noski geinetan, baño au ere etxe ormatako arri-landutan geiago; oiarrenbat ere arkitzen, baño burni-lanetan geiena, aize-orratzetan.

Orrek ere bere joan-etorria izango du zerbaitengatik izango da. Denboraz agertuko da.

Baño koxkatze eta apaintzeko lan ori bakarrik ez degu aintzakotzat artu bear; apaingarriak alde batera utzita ere, berez ikusgarriak diran eusko-gauza asko ba dira.

Iri ta beien ustarrizaz jakintza oitan dabiltzanak arretaz, ta sakon idatzi izan dute; ta beste ainbeste gertatzen da eusko-kutxa ta antzeko tresnekin.

¿Eta argizaiola ´gatik zer esango degu? Frankowski batek tresna txiki arretzaz egin dituan ikastaldiak; zuen artean asko gogoratuko zerate gai orretzaz nola idatzi zuan eta nola berak esaten zuan eusko argizaiola ´ren irudiak besoak jasotako gizon baten antza duala; eta bera oso zar eta antziñako gauza dala.

¿Eta il-obietako arri-landuak? Eusko-berezkoak ta oitura sakon zar-zarren agerkaiak ba dira ba oiek ere. Arri oitzaz nere adiskidezan Colas jaunak ikaskuntza aundia egiñik idazki edo liburu ederra, argazki politez apaindua argitaratu zuan.

Arri oiek nolakoak diran ba dakizute; gañean puska borobil bat, eguski, izar antzeko lerro ta koxkaz egindako apaingarria ´kin, eta andik bera beste zati luzea agertzen dute. Toki askotan esan oi dute lurperatuta dagon gorputza agertu arazi nai duala arrian irudi orrek; gañeko borobillak burua eta bekoak gorputza. Gauza orretzaz zer izango dan nik ez dakit ziur, baño Frantziko euskalerrian eda ipar-euskalerrian arri oiei guztik deitzen diote gizonak.

Ipar-euskalerrian il-erri edo kanposantu guztik olako arriz bateak arkituko dituzue. Gure emengo aldean oso gutxi edo baterez; emengo Il-erriak munduko beste guziak bezelakoak dira, ez dute bereztasunik; eta ez luke ala bear. Orlan ere izaeraren agerkai eder eta gure gure-gurea ba degun ezker jarri bear genduke; euskalerriko arquitecto eta beste erti-zaleei artarako eskaera bat egingo nieteke.

Orain esaten ari geran erri-erti sail ontan, beste agerkai bat ere ba degu; etxetako ormaetan arkitzen diran irakurgai eta armariak.

Irakurgai oik ere ipar-euskalerrian emengo aldean baño geiago arkitzen dira; txit ederki egiten dute, ormak ederki apaintzen ditue; gure erriko bere-berea da gauza au ta beste errietan gutxi arkitzen dana. Etxea zeñek egin zuan, noiz egiña dan, bere izena eta beste iragarri eta esaera zarrak ere iragarki ederretan jartzen dira. Gauza ederra, egokia ta gurea da au ere ta astu bear ez degu. Emengo aldera ere oitura ori zabaldu dezagun.

Arma-arrik berriz nun nai ba ditugu. Batzuk onak dira eta etxe-ormak bi-ziro apaintzen dituzte. Baño guztik ez dira onak, asko ba dira ikusgarriak.

Idiakez'ena bizi guztian begi aurrean daukatena; nik ez dakit armari orren egilleak nundik aterako zuan abizen orrek «idiak-ez» esan nai zuala eta an jarri zuan zati batean idi-burua eta adarretik eltzen diola esku bat; «idiak ez beintzet». Zaldibi'ko armaria egin zuanak ere ez zuan burua asko nekatu; zaldi-bi zala usteko zuan arrek eta armarian bi zaldi jari zituan, gogoratu gabe Zaldibi eztala bi zaldi baizik Zaldi-bide erderaz «camino de herradura» esaten dana. Eta Arpide izeneko etxe batean armari-egille batek «arpa» bat jarri zuan. Eta olako asko dira Euskalerrian.

Ortan ere onak eta txarrak ba dira; onak ontzat artu ta gorde ta euki, eta txarrak berriz al dan azkarrena kendu ta bastarreratu bear litezke.

• • • • •

Erri-erti beste zati bat eun, zapi, jantzi, soñeko ta orrelako gauzaz degu. Agerkai oiek ez dira ain ugariak, baño bai ikusgarriak. Gaurko egunean eta urte asko dala, euskaldunen jantzia ia ziara galdu dala esan liteke. Erronkari (Roncal) eta beste tokiren batean geienaz ibiliko dira. Lengo jantzi aietatik puska bat edo beste bakarrik gelditzan dira, gure baserritarrak ibiltzen dituzten abarkak eta beste olakoren bat.

Ori emen bakarrik gertatzen dana ezta. Mundu gustiko jendeak jantzi berdiñera jotzen degu, moda deitzen dan gauza orrek gutxi edo asko guztiok bere mendean artu gaitu.

Baño gordeta beenik, batzarretan ba dira, eta aik jaso ta ikasgai bezela artu bear ditugu.

Ta berdin esan bear degu zamaoa, Elizako zapi, oeko-jantzi-erantzi eta estalki ta oazalak bere lerro margodunez eta eskuz egindako lan-apaingarriaz apaindutakoengatik.

Naparroko erri askotan eta ipar-euskalerriko geinetan etxe asko tan ardatzez egindako eta margotutako zapi luze-luze bat gordetzen da, eta Korpus goizean Gure Jaunak igaro bear dun bidean, iya, ezpata-belar eta olako usai ederreko belarrez lurra estali ondoren, etxeko-andreak bide erdian luze-luze zapi ura jarriko du, aizeak eraman ez dezan arrikoxkor batzuk ertzetan ipiñiaz, Jauna daramakin apaiz-abadea arren gañetik joan dedin. Beñere galdu bear ez litezken oitura ederrak.



Beste erri-erti aundi bat artu dezagun orain; soñu edo musika gaia. Ortan-txe bai aberastasun eta ugaritasuna Euskalerrian! Euskalduna, zerbaitetarako ertizale izan bada, ontarako izan da; soñu, kanta, abestutzea, euskaldunaren bizierako ia jatea bezin bearra izandala esan liteke.

Euskaldunak eginkizun guztietako soñua eta abestutzea bear izan du. Elizan abesti miragarriaz Jaunari bere biotzeko mugirak eskeintzen dizka; lanean abestutzen ari bear du, ta jan otorduan, lagun artean bada geiago, eta andregaiari bere maitasuna agertu nai dionean, eta aurrari loarrasteko; eta urteko jai edo festa bakoitzerako bere abestiak ba ditu, eguberri dala edo aste santu, maiatzeko gurutze santu ta loreak, sanjuanak eta abar; eta lan askotarako bere abestiak baditu liñoa jotzeko, karobia bukatzen danerako, txalaparta soñua, eta artatxuriketakoak, eta beste asko.

Gure kanta zarren goxotasun, egokitasun ta edertasunez mundu guztiko erti-zaleak arrituta gelditzen dira. Alde guztietara gure abesti oien ezaguera nola zabaldu dan arrigarria da.

Eta ezaguera ori zabaltzea ez da ezer, Euskadi berean gure musikaren alde sortu dan zaletasuna izugarria da, eta gai ontan bai esan genezakela pizkundeari asiera ederra eman zaiola.

Ori guztia euskaldun zintzo eta musikari bikain diran gizon batzuei zor zaiote. Emengo abestien edertasuna ta ugaritasuna, euskalduna etzan musikari frantzez Charles Bordes´ek, lenengo sumatu zuen eta abesti batzuk agertu-arazi zituan; asiera ederra izan zan au eusko musika pizkundearentzat.

Gero, alde askotatik euskaldun ospetsua dan D. Resurrección M.a Azkue jaunak eta beste gipuzkoar prestu ta zintzoa Donostiar Aita Jose Antonio´k mirari bat egin dute; berezko lore politikak basoan biltzen diran bezela, gure kanta zarrak bildu dituzte eta bear bezela orraztu eta antolatuaz gure musika iñork uste etzuan tokietaraño jaso dute. Gero euskalerriko beste musiko asko, eta erti-gai ontan onen-onenak, lana gogoz egiten dute.

Beren izenak aintzatu eta goratu ditzagun bada.

Gai ontan txistu eta txistulariaz mintzatu bear gera. Ontan ere egin dan aurreratzea izugarria da; urte gutxitan gure soñu au lurretik zeruraño iyo balitz bezela goratu da eta pozik gaur goi-goiko malletan ikusten degu.

Aurreratzen dijoan bezela, gauza bateri pixkabat begiratu bear zaiola uste det. Bai txistulariak eta bai txistuz jotzeko soñua asmatzen duten musika-riak, gure soñu orrek erri-usaia galdu ez dezan begiratu bear dute.

Oraindaño naiko ondo guazela nago; baño contrapas eta olako soñu batzuetan «música di camera» bezelako gogoa usantze ote dan iruditzen zait; txistulariei eragozpen geiegi jartzeko gogoa ere bai.

Eragozpen geiegi jartze orrek gero lenengo txistulariak atabal-txotxaz kompas edo neurketa emanbearra berekin ekartzen du, eta ori egokia etzait iruditzen, erriko gauzaren antza orrekin galtzen duala uste det, eta gañera ez dakit zenbateroñoko bearra dan; erderaz deitzen dan «cuarteto de cuerda» elan izugarritzko gauza zailak jotzen dira eta kompas edo neurketarik iñork ez du eramaten.

Baño kezka txiki oikin txistularien eta musika-egilleentzat biotzez senti dodan txalo ta zorion-agurtza ez nuke illundu nai. Bejondeiotela guztiei eta jarrai bere ain ederki asitako bidean.

Musika edo soñuakin batera elertia edo literatura-gaia bateratuaz egiten dan erti-gaiaz, itzegiten asten ba gera gure bertsolariak nun jarriko ditugu?

Auxe ere ba da gauza arrigaria. Lengo igande batean, Euskaltzaleak Errenterin jai eder ura egin zuten egunean. Txirrita eta bere lagunak leiotik-leiora bertsotan ari zirala, Erri-etxe-aurrea jendez ain betea eta angu jendearen gozamina ikusita, aldamenean neukan gizon azkar batek esaten ziran «au bezalako gauza eta jai bat mundu guztian ez ta». Alkarren aurka bertsoak bat-batean ain ederki sumatu eta esatea, kantatuz, ori euskalerrian besterik ez da. Ameriketan ba dira «bayadores» deitzen dioten bertsolariak baño guriekin antzik ere ez dute.

Auxe bai dala eusko-erri-ertia. Eta bertsozaleak baserritarrak bakarrik dirala ez esan, gu guztiok aubazabalik, txoratzen egoten gera bertsotan entzun ezkerro.

Bertsolariak kantaren doñua ere beren bertsoentzat dagokion bezela antolatzen eta aldatzen dute, luzatu, moxtu eta ematen diote alako doai bat dabilkiten doñuari gogortasuna kendu eta goxogoa agertzen dute.

Ontan ere zerbait galtzen ote goazen, inguruan entzuten det; oraingo bertsolari gazteak erderazko itzak ez botatziari euskerazko esakera egokiari baño geiago begiratzen diotela, eta orreri geiago begiratuaz oraingo bertsolariak lenokoan mamitasun, intentzioa bertsoari ematen ez diotela.

Bertsolarien izenak aitatzen ez det asi nai, baño batena bai, Euskadik sortu duan bertsolaririk aundiena, Bizkaiko Urretxindorra, Enbeita 'tar Kepa.

Orreri nere biotz-agurra bialtzen diot eta gure pizkundeak ainbeste bear dun eztarri ura oso sendatzia Jainkoak nai-dezala.

Bertsolarien ondotik beste gauza bat ere euskal-errian ba da. Bertso-berriak deitzen diran paperak; zeñek egiñak diran iñork ez du jakiten geienez; beti *berriak* izaten dira eta askotan «neska zar batek bere buruari jarriak.»

Orain dala urte batzuk larunbatero Tolosa 'ko azokan bertso oien saltzallen bat beti ba zan; orain ere batzutan izaten dira, baño ez leno aña.

Gañera bertso-paper oik baserritarentzat, eta ez diranentzat ere, bildurgarriak dira. Geon artean ere zenbat aldiz adiskide bat parragarri xamar edo bear ez dan gauzetan ikusten degunean «iri oraindik bertsuak aterako diskitek» esaten diogu.

Baserritarren artean alkarri egin lezaioken gauzik okerrera bertsuak jarztzia da. Zerbait gertatu ta okertzen diranean, etzaiari besterik ezin egin diotenean, bertsuak atera eta imprentaz edo irarkolaz egindako paperetan zabaldu; eta batez ere, gure erri txikitan, gutxitan gertatzen dana, neskatxen batekin zerbait gertatu dala edo eztala, eta batetik edo bestetik bertsuak agertzen dira. Gure aldean olako gauzen bat bere esku artean izan ez dun letradu edo lege-gizonik ez da izango; billaukeri edo «injurias» bezela epai-karriarengana eraman nai izaten dute, zeñek ateriak diran jakin ezkeru.

Baño bertso-berri oitan beste erakoak ere ba dira, eta oien egilleen artean baten izena aora datorkit, orain dala urte batzuk gure adiskide eta ezaguna izan zan Ramon Azkarate, tolosar ospetsua. Bere bertsoak nork ez ditu ezagutzen? Denbora artako tolosarak buruz dakizkigu guztik.

¡Beti euskaldun zintzo agertzen da, beti euskera eta euskalerraren alde mintzatuaz, para egin araziz zenbat gauza eder erakusten zitun Ramoxek! Bere bertso «Zertarako oiekin eskontzen zerate» Euskalerra guztian ezagunak dira eta abestutzen diran toki guztietan oso txalotuak. Erbesteko giza-semiekin eskontzen diran emengo neskatxei, parragarrikeri eta txorakerien artean, gauza politak eta zigorkada ederrak ematen dizkate.

Bere oroimengarri zerbait egin bear litzakela ustetan nago ni beti.

Aizkenik, beste erri-erti gai batez ere itz bi beden esan bear ditugu; ta ez nola naiko erti-agerkaia. Gure eusko dantzak.

Euskalerrigatik esan izandu da «Añamendiko gañean dantzan bizi dan erri bat dala» eta gustiz gaizki esana ez dago ori.

Euskaldunak bere jai, billera eta egintza gañenetakoetan beti dantza egin izandu dute. Gipuzkoako Batzar-nagusia edo «Junta General» biltzen zanean lenbiziko gauza aureskuba dantzatzea izaten zala nik bezin ongi daki-

zute. Bada Elizkizunetan beti dantzatu izan da euskalduna eta erri askotan oraindik oitura ori ezagutzen da; Zumarraga 'ko aldare nagusian, Oñatiko Korpus eguneko ibilaldi deun edo prozesioan eta beste toki askotan.

Errietako Udal edo Ayuntamentuk ere ba dira oraindik beren dantzariak aurretik eramaten dituenak, Tolosa 'ko bordondantzarik bezela.

Zuek guztiok zenbat dantza mota asko ezagutzen dituzue, baño ezagutzen ez ditugunak, edo gutxi ezagutzen ditugunak, ere Euskadin ba daude.

Urte gutxi dala Iruñan jai bat egiteko Naparroko dantza mota asko bildu ziran, eta guk ezagutzen ez giñuzen dantza asko an agertu ziran; aberastasun ura ikusita arriturik egon giñan.

Eusko dantza gustien gañetik nagusiena bezela aureskuba jarri izan dute; agintarien dantza zalako izango da ori nere ustez; neretzat aureskubak, Gipuzkoan dantzatzen dan bezela beintzat zar-usairik ez du, berri-xamarra ote dan iruditzen zait.

Beste bat da neretzat dantza ederrena, zar-zarra Bizkaiko ezpata dantza, antxiñako eusko gudarien dantza jatorra. Erri-erti bezela mundu guztian gauza gutxi izango dirala uste det au bezin ikusgarri ta au baño ederregorik.

Nik egi benetan esango dizutet, nere eusko biotzean alako zarrada, gorpuz guztian alako otz-ikara bat sentitu gabe beñere ezin ikusi izandu det Bizkaiko ezpata-dantza au.

**EIZAGIRRE TAR JOSE**





# Euskalerriko oitura ta sineskeritxu bat edo beste.

**R. M. Azkue abadeak**  
**Bergarako Batzar-egunetan,**  
**1920ko azaroaren 3-an**  
**irakurritako lana.**

-I-

## **Euskaldunak:**

Orain ogei ta amar bat urte, *Euskaldun Biltokia* izendun teatrotxu artan, beste zerbaitez gañera, *Colonia inglesa* eritzaion komedia bat atara neban. Orduan uri aretan, Bilbon, orain baño geiago zan euskera utsezko lanak antzokietan agerraraztea. Orregaitik antzoslari areik, nire lumapekoak beintzat, batzuk euskeraz ta besteak erderaz itz egiten eben. Lenengoen artean baserritar bat atara neban *Colonia inglesa* artan, bein edo bestetxuetan erderaz be mintzo zalarik. Aren erderakadak gozaro farra egin eutsen entzule geien geienei. Bati ez. Eta bat au nor zan atsegiñez jakinaraziko deutzuet: Arana-Goiri, Jardines kaleko etxe artatik kaleratu zanean lagunuen batek galdetu eutson: “¿zelangoa eritxi dautsazu Colonia inglesa oni?”. “Polita deritzot, baño gauza batek enau bete. Baserritar gizagaiso bat, orren barregarri atarateari ezteritxot ondo, ez gitxiago be”.

Bizkaian “arrazoi dozu”-ren orde, alde batzuetan beintzat “berbabidean zagoz” esan oi da. Izpidean egoan gizon ospetsua. Gaurko mintzaldi onetan azalduko dodazan oitura ta erri-sinestetxuak geien geienak baserritarren artean baturikoak dodaz. Urietan Euskalerrria azal-azalean baño ezta



bizi, geroago ta azalerago. Baserrietan bizi da gure ama zar maitagarri au beronen bizi-sustraiak sakon ta errotso dabezala. Nik uste dodanez, gaurko mintzaldi onen bitartean askok, geienok noski, noizean beinka bar irritxu batzuk egingo dozuez; eta orain ogeta amar urteko gorabera a, barriro gertatu eztaidan, gure baserritar artean bein edo bestetxuetan Alemania ta Frantzia ta beste Erri batzuetako nekazariak aipatu nai izan dodaz. Etxeko eztanari beti izaten jako lotsa ta begirune geixeago.

Beste zerbait be oartu bearrean nago. Lengo illaren erdi inguruan, Aragon goialdean euskalondakin zar-zar billa ari nintzanartean, Bergarako euskolagun auetarako egitaraua bidali eustien. Nire lan onek “Conferencia en euskera sobre leyendas populares vascas” izan bear ebala irakurri nebanean, ango nire azteraldia eten eta ipuin ta irakurgai orren eske Bilbora jo bear izango neban. Baña Eusko Ikaskuntzako zuzentzalle ta lagunen baimenez, *Leyendas y creencias populares vascas* gaitzat artu bearrean, **gure Erri onen oitura ta siniskeritxu batzuk** jakinaraziko dautzuedaz. Luzegitu enaiten, bildurik dodazan zirriborro ugarietatik gaitxu oneik autatu dodaz; **Erleak, Begizkoa, Igarregunak, Asto lasterra, Ollopeko arrautzak, Doniane ta Ezkontzak**, beste zertxobait or-emenka arteratuz.

**Lenengo gaia: Erleak.** Mamu eder zoragarri onein nagusiari Euskalerriko alde geienetan erderatik arturiko izena emon oi dautsogu: *erregiña*. Zuberotarrak izen bitxi bat daukie: *andereder*. Nonbait *Andere* entzun izan dot.

Erleak ez omen dira, diruz beintzat, ez erosi ez saldu bear; beste zerbaitez ordetu bai. Bilbo ondoan neronen adiskide batek, erleak bere uda-etxeko baratzean Erandioko seme bati ezarrarazita, bere lanaren ordezen zenbat diru nai eban galde egin eutsonean, ezelan be ez eban zuriko (ardit bat) baserri-tarrak artu gure izan.

Ondarrabian, orain irureun urte ez oso, ango seme batek Eiza Audala eritzon mauru bat saldu eban.

Gizona bai ta erleak ezin saldu. ¿Nondikoa ote dau mamu eztingilletxu onek gizonak ez daben berezitasun edo pribilegio au?

Erlategi-etxeko nagusia, naiz bere emaztea il danean ( toki batzuetan etxeko edozein ilda be bai) norbait erleengana joan ta ilbarria itz gitxitan emoten dautsie: *usaba il da* edo *nagusia il da*; *ugazabaandrea il da* edo *etxeko andrea il da*.

Gernika ondoko basauri polit Gorozikan, etxekoren baten erio-egunean, *erleen bearra egizu* esanez, adiskide bat barri au emotera biladuten dabe. Isiltxorik urreratzen jakie mandataria ta erlauntzari estalkia kenduta, bederatzurren osoan, elizkariak dirauten daben bederatz

egun areitan, eralauntzak zabalik itxiaz, barrukoei berba oneik zuzentzen dautsiez: *Urlia il da*. Elizako bederatzurruna amaitzean erlategi-ko bedertziurruna be amaitzen da, lengo antzera erlauntzak estalirik izten dabezala. Naparroako Bera deritzon uritxuan, Sospela auzotegi-ko emakume batek olantxe (azentu ta guzti) iragarri eutsen erleai beren jabearen eriotza: *etxeke andria il da ta egizu argizeri aunitz zerura bialtzeko*.

Bizkaiko baserri askotan erlategi aurrean, Erramu egunean bedeinkatutako kurutze bat, saratzezko kurutzea, zutunik ipinten dabe. Bein edo bein erleak alkartu ta igesi joaten be badakie ta ona ta emen, berak erakartzeko, basauri batzuetan egin oi dabena: ontzi batean ardoa ta bestean esnea erakutsi ta ganera erlauntzak be ardoz eta esnez igortzi.

–*Erleak ardaozale ote dira?* Galde egin neutson Gorozikan nire barri emoleari. –*Jauna, erantzun eustan berak, mozkortiak dira erleak*. Arri-gorriagako irakasle izan neban emakumeak be erleei, neguan, otzez il ez daitezen, azukreagaz gozaturiko ardaoa emotea ona dala esan eustan. Beste bitxi baten barri be izan neban len aipaturiko Gorozikan. Zaldi naiz beor bat ilten danean, bere burua taket luze baten erpinean ezarri ta erlategi ondoan zutunik egun batzuetan itzi oi dau erle jabeak.

## -II-

Goazen orain bigarren gaira: *Begizkoa* zer dan ta zelan kendu daiteken ikastera. Izen asko ditu gaitz onek or ta emen zabalduta. Beste errietako izenen aldean gure artekoari deritzot egokiena. Guk, Euskalerrri osoan ezarren, alderik geien geienetan beintzat, *begizkoa* esaten dautsogu. Aetzen artean (Aezkoan) *begi gaiztoa* emoten dogu izentzat.

Ormaiztegin amama bati galde au egin neutson bein. –*Begizkorik ote da gero? Begizkorik ezta?*

*Izena ipini jakonean, zerbait ba da, erantzun eustan. Eta begizkoa egin jakon umeari ¿zer egiten dautsozue gaitz ori kentzeko? Atzapar zillarrezko bat eskubitorretik dingilizka erabiltzea ei da gauzarik onena*“ Ormaiztegin lez galdera ori basauri batzuetan egin izan dot. Entzun nebazan itzakin berakin azalduko dodaz emon eustiezan osapideak. Araban, Aramaionako Olaetan: *umeari begizkoa kentzeko, kirikiñoaren agiñak soñean josi oi dotsez*.

Bizkaiko Murelagan:

*onetarako, begizkodunari kaltzerdiak iruntzietara jantzi bear jakoz*“.

Aramaionako Gantzagan:

*begizkoa kentzeko ura Elorrixotik ekartzen eben Gantzagara, Naparroako San Gregoriotik be bai“.*

Elorriion sendagallu bi emon eustiezan. Lenengoa: *begizko umea osatuteko, Eleizako iru ontzietatik eroan bear da ur bedeinkatua. Bigarrena: eskean dabilienak baturiko ogixaren zati bat umeari emon ezkeru, ume onek eztau begizkorik izango. Markina ondoko Bolibar edo Goilbarren au emon eustien: begizkorik umeari egin eztaion, ikatza kolkoan sartuten eutsoen“.* Polita da Naparroako Aezkoan emon eustien osapide au be: *Begi gaiztoa norbaiti egiten jakonean, antxina abadeari deituten jakon. Orain, abaderik eztanean erratzari (eskobari), barri barritan txatxamur bigez kurutze bat egin, erraz ganean ipini ta oe aurrean iminten da“.*

Laraungo Baraibarren irakatsi eustien beste au: *San Pelayo arratsaldean, Alira begizkoa kentzeko, beti negarrez diran umeak eta olango zenbait gaitz dabena Ebanjelioak altaratera eroaten dabez. Abadeak liburu batetik zerbait letu ta iru aldiz siñatuta gero, Pater noster errezatuz, erlikia mindunari, mun emoteko, urreratzen jako. Ebanjelioak atarata gero kutun bana emoten dautse abadeak. Erreal bi ordaintzen da. Kutun orretan, izkribatutako paper bat egoten da. Gipuzkoan be joera andia dago Alira: Bedayotik, Amezketatik, Ataundik eta abar.*

Lekeition eta Gorozikan esan eustien onek be, jakingarritxua diruri: *Kutuna paparretik dingilizka edo josita erabiltzen da. Kutun barruan iketza, diru txiki bat, umearen zila (gordeta eukirikoa) ta apioa eukiten dira.*

Bizkaiko beste erritxuren batean, zeinetan eztatit, au gañeratu eustien: *kutun orretan iru gauza sartuten ebezan: ogi bedeinkatua (iru zatitan elizatik ekarririkoa) olio ta ollo korotza“.* Nonbait eta noizbait kutun orren orde, azkunarren atzapartxu bat dingilizke ipinten eben gurasoek begizkodunen paparretik.

Ona emen Arrasateko eskribau Barrutiak orain bereun bat urte egindako “Acto para la Noche Buena “deritzon teatru gaitxu batean diñona:

*Azkonarraren atzamartxo  
ekarriko dot menditi,  
begizkori eztagizuen  
bulartxorean isegi“.*

## -III-

Goazen orain beste gaitxu bat azalduten. Ondarroako auzitegi Azterrika deritzon berba eder bat ikasi neban: *igaregun*. ¿Zer dira egun oneik? Bizkaiko beste basauri batzuetan *illegun* esaten jakie. Egun oneitan zelango egunaldia, alangoa izango da urtearen amabi illabetetan.

Asterrikan, (Ondarroako auzitegi artan) urtebarri ta bere urrungo amaika egunak dira *igaregun* oneik. Egun orretariko bigarrenan euria bada, urtearen bigarren illea, otsailla, euritsua izango da.

Bosgarren igareguna legorra izan ezker, maiatzak bosgarren illea dalako, euri bako izan bear; eta olantxe beste amabi egunetako eguraldiak urtearen amabi illetakoak iragarten dabez.

## -IV-

Beste gaitxu bat orain. Orain urte asko dala Lekitioko arrantzaleak itsaso zabalean ebiltzanen artean ez eben *diabrua* ez *demoniñua* esaten, ezta *denganiñua* be. Nire erritarren espanetan *beste mutilla* esaten zan, itsasoan ebiltzan artean beintzat, gure etsaiaren izena.

Amezketarren artean *gaizkiñe* edo *kaskiñe*. Orion, Baztanen, Larraunen eta beste alde askotan *kaltzagorri* daukie deabruaren ordezeko berba lez. Bizkaiko erri askotan eta Antzuola ta inguruetan *Txerren* esa oi da orain be.

## -V-

Goazen aurrera. Orain jakineraziko deutzuedan *Asto lasterra* beti izango dozue buru barruan.

Naparroan (goikoan eta bekoan) eta Zuberon oitura bitxi zar au, aiton-amonon gomutan bizi da oraindik.

Lenaldiz Baztanen jakin neban; gero Luzaiden eta beste tokitan geroago.

Etxe bateko emakumeak bere senarra jo egin ebala baserriren batean zabal-tzen zanean, urrungo jaiegunean erriko plazan ikuzkizun txabelin bat izaten zan. Mutiko bi, senar-emazte lez jantzita, agertzen ziran, lurra lantzeko tresnaren bat edo beste, eskuetan eukiaz. Atxurren naiz laietan azten ziran lenengo, ganoraz ta yasean. Laster izkamizkatxu bat sortzen zan beren artean eta asarratuten zirala egiten eben. Eta emazte soñekoz jantzirik egoan nak zipli-zapla ederrak emoten eutsozan bere sanartzakoari. Erriko plaza inguruan ziran ikusleek, lertu arte farra gozaro egiten eben. Auxe zan aldi bateko *Aso-lasterra*. Luzaiden *Asto-yokoa* eban izena.

## -VI-

**Abadeari lapurka.**

Naparroako baserritxo batean, Ezkurran, Arakilgo seme batengandik ikasi neban urrengo kontakizun au.

Lapur batek, bein, bere erriko abadeari diru andi eta mandoa ostuta gero, ñori be gertaera aren barri ez emoteko agindu ei eutson, ilgo ebala bestela.

-¿Jaungokari be ez?

-Jaungokoari, gure dozun ainbat aldiz.

Abadeak, urrungo domekako meza nausian, Prefaziora eldu zanean, olan emon eutson Jaungoikoari bere atsekabearen barri:

-"Erri onetan ba da gizon bat, Salamon deritzon bat, mendietan, txaparretan, dirua kentzen, gizonak iltzen dabillen bat. Niri, neroni, kendu deustaz berrogei otxin ta manda-mulatxu bat. Ortaz ganera bai ta edanarazi be, manda-mulatxuaren pixa-tanto bat. Ez esateko, Jaungoikoari baño. Orregaitik esaten deustot gure Jau eta Jaungoikoari: or yagok, emen yagok!. Arrapa eizue gizon ori!" Sanctus, Sanctus, Sanctus jarraitu eban gero, isil-txurik, erretoreak.

Salamon eleizatik noizbait atara zanean, ¡jakiña! Baitegira (kartzelara) eroan eben lenengo, ta laster, urkamendira.

E

## -VII-

**Ollo errulearen** eginkizunez, gure Euskalerra maiteak daukozan oitura ta uste batzuk jakinaraziko dodaz urrungo lerroetan.

1º Otzandianoko urian eta inguruko auzoetan, ango batek esan eustanez, ollo azpirako arrautzak, irunaka ipinten dira. Lenengo ifinkeran kurtze bat egiten da eurekaz, otzaran " Aitearen, Semearen, Espiritu Santuaren ize-nean .Amen " esanagaz.

2º Durango ondoko Magunan (Meumen) au entzun neban:"Arrautza ganean olloa ilberan ekarrita, ollanda geiago izaten dira; ilgoran barriz, ollaskoak» Larraunen be bardin uste dabe. Markina aldean esakeratxu polit au jakin neban: "ilberako ollo ezartea ollandatsua; ilbarrikoa ollaskotsu".

3º Arrasaten ikasi neban au: "orretarako egunik onenak astelena, eguena ta sapatua dira; txarrenak martitzena, barikue ta domekea. Larraunen, oster, barikue nai izaten da, olloa arrautzen ganean ezarteko.





4º “Odeiak oska derautsenean trumoiagaitik kaltzairu zati bat ipinten jako ondoan, olloari”. Arrasaten esan eustien au be.

5º Elorrion arrautza osoak, an esaten danez, sats berotan edo ongarri epeletan sartuta, txitak ataraten dira.

6º Ollanda asko ta ollasko gitxi gure dauenak zeozer esan ei dautso olloari arrautze ganen ezartorduan. Elorrion “Magdaleneak gorde zagizala” esan ei dautse.

### -VIII-

Donianen oitura artean agiriena, aurreko gaubean sua egitea da. Suaren gaiñean zapart edo ijuti egite-orduan neska mutikoak zeozer kantatzen dabe. Durango aldean: “*San Juan, San Juan, ez tot nik besterik gogoan; lapurrak eta sorgiñak erre, erre; artoak eta gariak gorde, gorde*” Oyartzunen “*San Juan, San Juan eldu da; sorginbegia galdu da; galdu bada galdu bedi: sekula agertu ezpaledi*”.

Larraunen su orretan igazko San Juan bedarrak erreten dabez eta naiz atso naiz agure, neskatx nai mutiko, iru aldiz gitxienez su andi aren ganetik igitzen dira. Lenengo itzul aldian: *Biba San Juan Batista* esaten dabe, bigarrean *Biba Doni Belaio ta San Pedro*: irugarrenean *Sarna fuera* (batzuk *Sarna Gipuzkoara*), *ogi ta ardoa Naparroara*.

San Agustin andiak min artuten eban kristauak Donoiane egunean paganuen oitura bat berentzat artuz, itsasora bustialdia artzera joan oi ziralako. Euskalerrian orrelako zerbait ba dogu. Legor aldeko baserri askotan, Naparroan batez be, itsasora ez (urrutiegi daukelako) baña goizaldean gari arteko intzez gorputza bustitzera lagun asko joaten dira, larru gorritan ez gitxi. Beste ibarren askoren artean Anoziba deritzon bat dago Naparroan, iru baserritxu dauzana: Ziaurriz, Ripa ta Latasa. Ibar oneitan iturri bat da, Aingiru izen dauena. San Juan Bespera gaubean, purrustaka edo saltoka edo mortxaka andietan joaten dira aurpegia (batzuk gorputza) bustitzera eta laukoak (pesetak ere bai) egotzi edo botaten dabez.

Betelun be Dama-iturrira ta Iturri santura gau guztian erriko ta erbesteko lagunak ugari joaten dira. Ura ez ei da bape zikintzen.

Beste oitura zar bat, paganuegandikoa dirudiena au be, Donianeko gauberdi gauberdian erri askotan daukie: Bizkaiko Amorebieta, Barakaldo ta Oztandiano, Naparroako Ultzaman, Larraunen eta Erronkarin gitxienez. Aur batek etena, edo ernia, dabenean Doniane aurre-egunean aritz bat arri-

llatu egiten dabe, adar biak alkarrengandiak banatuak, edo zabalduak, dabezala.

Larraunen Juan izentzat daben gizonak erabilten dabe aurra. Barakaldon, Juan bi ta emakume bat, Maria, artuten dabez orretarako. Otxandianon Juan eta Pedro bear izaten dira ta an esan eustienez, “bizkiak izan bear dabe” edo batera jaiok. Gauba erdira eldu baño lentxuago, an izaten dira Juan ta Juan, edo Juan eta Pedro. Larraundarren itzak dira auek: Juan batak aur eten ori eskuetan izaten dau, erlojuak ots egin bear dabenako ernai ta gertu. Lenengo dandara entzunaz batera, beste Juani emoten deutso aurra, berba oneik esanaz: “*Juanek izten zaitu*”. Bigarren *Juanek*, aurra eskuetan artzean, *Juanek artuten zaitu*; ark *Juanek artuten zaitu* eta olantxe batek itzi ta besteak artu, aldizka berba orreik esanaz, dabiz oiturea gauzatuten. Amabigarren dandarak ots egiñez batera, isilduten dira biak. Iru aldiz igaro bear izaten dabe aur etena aritz gazte artesiaren alde batetik bestera”. Otxandianoko barriemolleak esan eustanez “aritzza barrero lotu egiten dabe ta ustelduten ezpada, umea osatuko da”. Ultzaman iru Juan bear izaten dabez onetarako. Lenengoak bigarrenari “*Tb, Juan*” esaten deutso. Bigarren *Juanek* irugarrenari : *Ar zak, Juan*. Irugarrenak lenengoari: “*Tori, Juan*”.

### -IX-

Naparroako alde batzuetan ezkontzarako xurimente edo barruko soñekoak gertatzen gazterik asten ziran emakumeak. Amaiurren eta Barabairren neskato batek, amairu urte ebazala, asten eban gurasoengandik, linoa ereiteko, lur-zati bat. Ordudanik asten zan neskatxa bere linoa berak iruin eta euleak egindako euna, berak zuritu ta garbitzen.

Beizaman, esan eustienez, ezkontzaurrean bigarren deiak erakutsita urrungo eguenean ezteiliar bakoitzak gaitzeru bat gari ta gañera olioia bialtzen dabe. Ogerleko bat be emoten dabe aide urkoak eta auzoak. Gazteak, barriz, izera ta zapiak edo beste zerbaiten bezuza, egin oi dabe. Leniz ondoko Gatzagan oitura bardin bat daukie. Bigarren elizdei egunari bota-eguna (zato-eguna) esaten dautse edo eutsen. Bazkaria baño lentxeago emaztegaiaren arrea erakusten da, berba oneik erakusleak espanetan artuz : *amabi kamisa dauko, amabigarrena soñean*. Berba oneik entzutean norbaitek isiltzurik esaten ei dau: *eztakigu daukan ala eztaukan*.

Lekeition arrea erakustorduan bardintsu berba egiten zan: *amabi kamisa daukaz, soñean be eztago ein barik; zazpi daukoz; kaltzerdiak zortzi, soñean be eztago ain barik*, eta olan barruko jantzi guztien barri emonda gero, “*Amen guztiak eta geiago balio dauena*” gañeratuz, emaztegaia aurkeztua izaten zan.

Donibane Loitzunen senar-emazteak ezkontza-meza bitartean ogi bat alkarri emoten dautsoe. Bidasoan ertzeko Beran, emazte barria etxe batera

sartzen danean erleei au esan bear jakie: *Erleok: orain errespetatu bear dozue etxeko andra barri au.* Eta Eltzauria deitzen jakon etxaldean ez ebelako au egin, erleak igesi joan ziran. Etxeko andra barriari zarrak burruntzalea emoten deutso, etxeko nagusitasunean sartzen dala adierazteko.

Bide barri zabalak non nai egiñak diran gure egun oneitan ezkontz oitura zar geienak joanak dira. Lengo eztei egunean ezkonbarriak maipuruan egoten ziran. Bigarren egunean berak egin bear izaten ebezan otseinen lanak.

Orain Arabarrak ba dira, senar emazte barriak, baserritarrak be, Gazteizera doaz; Bizkaitarrak ba dira, Bilbora; Giputzak Donostira; Lapurtar, Benapar ta Zuberotarrak Baionara; Naparrak! jakiña! Iruñara.

Egun gitxi batzuk igarota zoazie zeuron jaioturitxura ta ez artu kalearten izateko gogorik. Zuen seme-alabak ikasi daiela izkera zar, eder, bakar, bardinbagea ta izkeraz batera aspalditxuan bilduak diran millaka kantuen artetik eunen bat bederen. Olan daukazuen bake urregorria ez zendueke kaleartean izango.

Bai, Jaungoikoaren adizkidetasun gozoagoa, gertuagoa ta eskuragoa betiko zoriona.



**R. M. Azkuen Itzaldia.**  
*MUNETXEK egokitua*





## Ez dut errezatuko erdaraz


### BITORIANO GANDIAGA

Arantzazun dago nire lana eta bizilekua. Arantzazu santutegi eta bakarlekua duzu. Andre Mariaren irudi zaar baten inguruan sortu ta azi da Arantzazu. Bada bosteun urtez gora, Euskal Erriarentzat fraide komentu andi ta arrunt baino zerbait geiago dela. Andre Mariaren irudi zaarrak erakarmen aundia izan du alde batetik; bestetik, berriz, fraideak izan dira erromesarekin itz egin dutenak. Arantzazu ardatz eragile bat izan da Euskal Errian. Euskal Erriaren barruz barru aritu den ardatza. Arantzazuri buruzko erromantze bilduma bera bakarrik ere naikoa da diodana egiztatzeko.

Jende euskaldunak eragin dio Arantzazuri, jende euskalduna izan baita geienik Arantzazura urbildu dena. Jende euskaldun orri bere izkuntzan erantzun bear izan dio Arantzazuko fraideak. Entzun eta erantzun. Euskaldun jende orren berri sakona izan du Arantzazuko fraideak. Jende orren izaera ezagutu du, jende orren nai, bizimodu, aiurri, ezin eta pobretasun sakon ezagutu du, eta jende orrentzat bizitza bearturik aurkitu da istoriako trantze bakoitzean zear. Jende orren izkuntza ain apalarekiko izan duen arreta bera, ez da izan makala. Tradizio orretan, gure belaunaldiak ezagutu duen katemaila, Salvatore Mitxelena izan genuen. Poeta, iztoriagile, saiolari. Tradizio onek ba du egun ere exponente ederrik gure Aita Villasanterengan. Nor bakoizaren sensibilitate, gustu ta joeraz kanpo, eta euskara landuz etxe onetan etorri dan gizaldiz gizaldiko zaletasun abiaduraz gainetik, Arantzazura urbildu dan jendea izan da, emengo euskaltzaletasunari etengabe eragin diona. Niri beintzat jende ori zait benetan eragile izan.

Eliza-osteratxoa egin ondoren eta ingurua begiratu, edozein bastertxo aukeratu du jende orrek bere bazkari-legetxoa egiteko, eta an daude, izketan baino isilik, jaki-pardeltxoaren inguruan, isilik eta jaten, noizbeika zerbait diotela, euskaraz isilik itz egin bear bailitzan. Kolpean ezgutzen dut usadio zaarreko euskaldun taldea. Erdaldun jendea, edota erdaraz ari dena, altu-altuka mintzatzen da, solteago mugitzen da, abarrots andiagoz da nabarmentzen. Ez du beldurrik, seguru sentitzen da, inguruaren jabe da. Beldurra olako kikildurak lotzen du euskalduna, oso seguru sentituko ez balitz bezala

ageri da, paraje arrotzean aurkituko balitz bezala. Gizaldietako menpetasuna, agian mendeetako, nabari zaio, setiatutako eiza ikaratu adina ez bada ere, abere bildu ta uzkurra dirudi gizajoak. Euskaldun utsa izateak alako bajutasun lotsagarria balu bezala. Jende orren umiltasunak irabazi nau ni, jende au zait nagusitu sentipenaren sustraitaraino.



Euren Koruan  
 Jauna goratu zezan nai zuten  
 erdaraz ari zirenek.  
 Euren korura deitu zuten  
 euren pozaren doinuan  
 Jauna goratzera.

Urrutira begiratu zuen  
 euzkarazko begiratu.  
 Ez zien jarraitu.  
 Lurrak erakarrita  
 Korupera jatsi zen  
 Jauna beeratzera.

\*\*\*\*\*

Ez dut errezatuko erdaraz  
 Ez dut zabalduko  
 erdarazko Salmutegirik.  
 Salterioa artzazu,esan zidaten,  
 eta errezatu gurekin.  
 Euskaldun aniak ziren  
 neure lurrian eta etxean,  
 erdaraz errezatzera  
 deitu nindutenak.  
 Erdarak ez du errurik  
 ezpata ona dalako,  
 gure kontra iltzale  
 biurtu dutelako  
 ies egiten diot nik.  
 Nik neure lurrian  
 Eta neure etxean,  
 nire izkuntzan  
 goratu nai ditut  
 Jaungoikoa ta mundua.  
 Inoiz ez ditu aintzat  
 komunitateak artu  
 euskaldunon sentipenak  
 Beti eskatu digu  
 etsi dezagula erdaldunen alde  
 eta beti etsi dugu.

\*\*\*\*\*

**I**kastetxean  
 Karitaten izenean  
 Erdaraz egin bear da.

Kalean  
 edukazio falta da  
 euskeraz egitea.

Euskal Errko ikastetxe batean  
 Apaiz-karrera bukatuta  
 Euskaraz ezin zuela-ta  
 erdaraz egin zuen sermoia  
 euskaldun utsen artean.  
 Bere gurasoek ez zioten ulertu  
 Ezta bere erritarrek.

Baina Ikastetxean  
 Karitatearen izenean  
 Erdaraz egin bear zan.

\*\*\*\*\*

**K**aritatea  
 esate baterako  
 zera da:  
 erdaraz egitea  
 euskaldunen artean.

Beste ejemplu bat:  
 erdaldunen artean  
 erdaraz egitea  
 karitatea da.





Ⓔ

\*\*\*\*\*

*Gurpide Begoñan*

Denontzako da  
Jainkoaren itza,  
esan zuen gotzain jaunak,  
eta, erdaraz mintza zitzaigun,  
baina erdaraz bakarrik,  
zeren  
an ginen euskaldunak  
ez ginen ain den denak,  
naiz eta geienak.

Auxe esan dit amak.  
Baina gotzainak badaki  
naiz eta euskaldunak  
noizbait geienak izan,  
beti garela ondakinak.

\*\*\*\*\*

*Domine, labia mea aperies.*

Eta orduan Erriko seme batek  
otoitz au egin zuen:  
Itxi iezazkidazu ezpainok, Jauna,  
ez baitut nai erdaraz  
zure izenik goraipa.

Naitaez sartu ziguten izkuntzan  
bear bazaitut goratu,  
itxi iezazkidazu ezpainok, Jauna.

Ez baitzaitut nai nere izkuntza  
kabitik bota zuen kanpoko  
egaztiaren kantuz aipatu,  
itxi iezaizkidatzu ezpainok, Jauna.

Gure mintzaera biluzi au  
destainuz arbuiatzen dutenekin  
ez dut nahi aorik zabaldu.  
Itxi iezazkidazu ezpainok, Jauna.

Nola bear dizut aita-izenik eman,  
nola salbatzaile deitu  
morrontzan gauzkatenen izkuntzan?  
Itxi iezazkidazu ezpainok, Jauna.

Aaltsuen izkuntza ospetsuan  
ez naitzaizu izketan asiko  
osperik ez duen Erri-ondakin  
baztertu onen izenean  
Itxi iezazkidazu ezpainok, Jauna.

Aundikiengana itzuli ziren  
arro eta ergelen izkuntzan  
ez dut nai salmorik abestu.  
Itxi iezazkidazu ezpainok, Jauna.

Erriko ondakin onen izkuntza zapal  
apaldu onetan, zapalduekin batean  
goratu ezin baldin bazaitut,  
itxi iezazkidazu ezpainok, Jauna.

\*\*\*\*\*

Erri euskaldunaren izenean, euskaraz.  
Euskaraz, Jauna, Erri euskaldunaren izenean.

Ala gureak izan bear ote du bakarrik  
bere izkuntzan goretsi bear ez zaituen Erria?

Baina gure Erriko katedral-korueta  
ez du tokirik gure mintzairak,  
ez eta gure komentuetako salmu-saiotetan.

Baina elizgizon talde bat ere ez du Erri euskaldunak  
ez eta ere elizemakume talde bat  
bere ordeztu eta izenean goratu zaitzan euskeraz.

Eta euskaldunak akelarretan euskaraz  
mintzatzen diran egunotan  
inor ez da euskeraz mintzatzen santutegietan,  
ez eta euskal fededunen talde aukeratueta.

Baina nik,  
euskeraz egin nai dizut  
Erri euskaldun aldrebes onen izenean.



\*\*\*\*\*

*Kapilau mojei*

Jainkoari  
berdin ematen dio  
erdarak,  
zioen, uskaldunak  
Baina erdaraz  
errezatzen zuen berak,  
eta erdaraz egitera  
behartzen zituen  
moja euskaldunak.

\*\*\*\*\*

Pentsatzen nago pentsatsen  
Erri pobre baten  
izkuntza pobrea  
zein pobrea ote dan  
pobreza-botua  
egiten dutenek  
otoitzerako ere  
ez baitute onartzen.

\*\*\*\*\*

Nik badakit Erri bat  
izkuntza pobre bat  
zuena.

Nik badakit Erri bat  
mila apaiz zituena  
mila fraide, mila moja.

Nik badakit Erri bat  
izkuntza pobre bat  
zuena.

Nik badakit Erri bat  
kristau zena, oso kristau,  
oso, oso.

Nik badakit Erri bat  
izkuntza pobre bat  
zuena.

Nik badakit Erri bat  
Jainkoa bere izkuntzan  
goratu nai zuena.

Nik badakit Erri bat  
izkuntza pobre bat  
zuena.

Nik badakit Erri bat  
bere izkuntza pobrean  
Jaungoikoa  
goratu ez zuena  
mila fraideren kulpaz,  
mila mojaren kulpaz,  
mila apaizen kulpaz.





# Giza eskubideen aldarrikapen unibertsalaren urtean gertatua

## 1948 EUSKAL ERRESISTENTZIA

Ⓔ

### **EUSKALTZALE ETA ORTIK ABERTZALE**

Ondoren dijoan gertaria, 1936 gerraren ingurukoa, oso xumea da. Batez ere orduan gertatu zirenak kontuan izanik. Izan bedi ordea, ikusteko zenbateraino masiatu zen frankismoa, gertari xumeekin ere. Azken batean, ume batzurekin, orritxo batzuk banatzeagatik. Eta iñoren aurka ezer gutxi ziotelarik. Orrela izan zen nire gertakizuna:

- Umetandik, etxean ikasitako euskera maite nuen. Aita eta ama base-rrian jaioak ziren. Eta nire gurasoen laguntza eta ardurapenez, euskaltzale saiatua ere bihurtu nintzen, eta orren arian, bide batez, abertzale ere banintzen. Politikaz ezer gutxi banekien ere. 1948gn. urtea zen, eta nik emezortzi urte nituen.
- Abertzaletasun orren bidetik, izan nuen oztopoa. Gu bost lagun atxilotuak izan giñen. Donostiako Martuteneko Espetxea zabaldu zen urtea zen, 1948an. Ondarretakoa itxi zutenean. Orritxo batzuk banatzeagatik. Atzerritik Eusko Jaurlaritzak bidaliak. Auteskunde Munizipalak zirela eta, botoa ez ematera gomendatzen zuten.





- Gero, nondikakoa kontuan izanik, orritxo orien edukia, puztu egin zuten, eta ondorioz, auxe leporatu ziguten: *“Por pertenecer a la Resistencia Vasca, cotizando para los presos del nacionalismo vasco, y repartir propaganda de la misma, para desprestigiar las elecciones municipales, tendiendo con ello a relajar el sentimiento nacional”*. 1948a zen esan bezala, , eta ortik kontuak atera....
- Gertatutakoaz, Eusko Jaurlaritzara bidaltzeko “Frankismoen biktimen” aldeko ekintzarako, 80 bat orrialdeko espedientea osatu nuen agiriekin. Eta agiri orietan oiñarriturik egiña dut lan sakon bat. Luze joko luke dena aipatzea. Esango ditut ordea, gure pasadizoaren xetasun batzuk, labur bilduz espedientean jasotakoetatik.
- Atxiloketa Gobernadore Zibillaren aginduz, Juezak esku artu aurretik. Eta ordungo Kode Penalaren 251gn. arauari zegokion, guri leporatzen zigutena. ( Gaur orrela azaltzen da: (Art.251. Suprimido. Derogado por la Ley Orgánica 4/1980, de 21 de Mayo). Gauzak bide orretatik zuzen eramanez, iru bat illabeteko zigorra izan zitezkeen. Puztuta 6. Eta ia urte bete pasa nuen barruan. Eta ori nola?
- Bada, Kode Penalaren legeaz gain, Gobernadore Zibillak bere agintea bait zuen, eta biderapen orretatik, Epaitegiaren erabakiaz gain, erabiltzen zuen, bere aginte ori, gain zigorra erantsiz abertzaleei.
- Eta biderapen orretatik, iru Epaitegiren mende jarri gintuen:
  1. Militarra: Onek zerikusirik ez zuela eta Zibillaren eskuetan utzi zuen.
  2. Zibilla: Juzgado de Instrucción nº 2 de San Sebastián, deiturikoa.
  3. Berezia: “Ley de Seguridad” edo antzeko zeribait deiturikoa. ( aldi berean Zibillarekin, “ juicio paralelo”. Beraz arazo bat eta bi epaitegi batera. ). Azken au 1933an. Errepublikako Gobernuak sortua, gaizkilleen aurkako eta zerikusirik ez zuena, noski, arazo politikoekin. Eta ainbat gutxiago gure arazotxoarekin. “Orrek ere aske utzi gintuen, 1949ko Urrillan, zerikusirik ez zuela adieraziz.
  4. Orietz gain, Epaitegi batetik bestera pasatzeko tartea, Gobernadore Zibillaren mendekoek izaten ziren. Eta or iru illabete luzarazi zuten gure atxiloketa

Eta azken batean, 1949ko Apirilleaz gero, aske utzi gintuen Epaitegiaren mende gelditu zen arazoa. Zibillean alegia. (Juzgado de Instrucción nº 2 de San Sebastian)



Ordungo Kode Penalaren arabera zerikusia zuen bakarra, gure atxilotetarekin. Eta leen aipatu dugun bezala, azken onek egin zigun epaiketa esipetik aterata 4 urtez geroago, 1953an. Fiskalak 6 illabete eskatu zituen, ia urte bete giltzapean egon eta gero. Gaiñera Gobernadore Zibillak, 5.000 peztako isunaren erantsia, ori askatu aurretik, 1949ko Urrillan.

Ainbeste Epaitegi, erretentzio, e.a. gauza beragatik, biderapen nekagarriak bein eta berriro, atxiloteta luzatzeko aitzakia besterik ez zen izaten, aske utzi bearrean, Epaitegiaren aginduari, uko egiñez, gain zigorra erantsiz, Gobernadore Zibillaren aldetik..... Gaiñera urte orretan, 1948an. **“Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala”** izan zen. Alperrik ordea, emen zegoen guerra ondoko errepresio giro naasi artan.

- Guri egin zigutena, “Tribunal de Orden Público” delakoa, sortu aurretikoa izan zen. Eta arrezkero, bukatu ziren guk izan genituen biderapen mota nekagarriak. Beraz, txarra baiño txarragoak ere izan ziren.
- Aipamen txiki bat barrungo bizimoduari: Atxiloteta izan eta, inkomunikazio delakoa igarota gero, ikusirik nire lan bidea, Bankuan, espetxeko idazkaritzan lan egiteko deitu ninduten. ***Bide batez ere esan dezadan, Bankuan ordurako baneramazkiela iru urte lanean. Eta espetxeko arazoa bukatu eta gero, uskeria azken baten gogor zigortua, bada Bankuan oso gogo onez artu ninduten berriro. Eta ortxe jarraitu nuen beste 45 urtez. Zuzendaritza maillara iritxiz nire jarduera sakonez.***
- Nire kontakizunaren ariari berriro elduta, esan dezadan lan ederra egin nuela espetxeko idazkaritzan, utsaren truk, eta oso gustora gaiñera. Patioa baiño giro ohea, gaizkille guztiekin naasturik. Politikoez talde berezia sortzen bagenuen ere.
- Ez zegoen irratirik. Eta galeraziak zeuden kanpoko egunkariak eta aldizkariak. Barrurako bereziki egina “Redención” izeneko aldizkari bat banatzen ziguten. Ez zegoen ez oerik ez literarik, eta lurraren gaiñean, petatea botata lo egiten genuen.
- Egunoro bazkari goxoa, ori ordea, ama maite Bixentak maitasun osoz prestaturik aitak eramaten zidan. Aita Luxio, ura zen gizona, ura! Eta orretarako espetxe aurretik igarotzen zen Donostiatik Hernaniraiñoako tranbian etortzen zen, eta ofizinak kanpo aldera leioak ematen zutelarik, egunoro agurtzen genuen elkar, kiñuz. Ni barrendik eta bera tranbian zijoalarik, noski. Orixe zen garai artako Donostiako Martuteneko espetxea. Ez genuen bestelako ezbearrik izan.

- Eta eskerrak, garai berrietan Eusko Jaurlaritzak Agintean, 280/2002 Dekretuaren bidez, delako 1977ko Estaduko Ley de Amnistia zela eta, aztergai polikoengatik, saria eman zigun, 7.200 Euro, “frankismoaren biktima” bezala jasandakoagatik. Eta zigorpe ori Eusko Jaurlaritzan egiaztatuta dago dagozkion agiriekin, aipatutako espedientearen osaturik. Eta sariaren lorpena, onela adierazi zigun Eusko Jaurlaritzak:

## **EUSKO JAURLARITZAREN ERABAKIA.**

- “Delako Ley de Amnistia Jefatura del Estado 46/1977”
- Eta Eusko Jaurlaritzaren Dekretua 280/2002.
- EUSKO JAURLARITZA \*GOBIERNO VASCO.  
JAKINARASPENA:

“Amnistiari Buruzko Legean Jasotako Kasuen Ondorioz, Askatasun- gabeza Jasan Zuten Pertsonentzako Konpentsazioari buruzko azaroaren 19ko 280/2002 Dekretuaren 10.2 artikuluan aurreikusitako Batzordeak aztertu egin ditu dekretuen bertan adierazitako baldintzak betez aurkeztutako 8.680 eskabideak, eta 3.2 artikuluan ezarritako eran paraturik eta zure proposamenaren arabera, eta ikusita Herri Administrazioen Araubide Juridikoan eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea eta antzeko kasuetan oro ar aplikatu beharreko gainerako arauzko xedapenak:

- 3201 zenbakia duen zure espedientea dela eta, erabaki dut onela ONESTE zure eskabidea.”

## **EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO. NOTIFICACION:**

“Analizadas por la Comisión prevista en el artículo 10.2 del Decreto 280/2002, de 19 de Noviembre, sobre Compensación a quienes sufrieron Privación de Libertad por Supuestos Objeto de la Ley de Amnistia, las 8.680 solicitudes presentadas de acuerdo a los requisitos exigidos en el mismo, y ordenadas conforme se establece en su artículo 3.2, y de acuerdo a su propuesta, y vistas la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás disposiciones normativas de general y concordante aplicación”.

Resuelvo en relación con su expediente nº 3201, CONCEDER su solicitud en los siguientes términos:

- *Represaliado: José M<sup>a</sup> Murua*
- *Días acreditados: 328*
- *Cuantía: 7.200 Euros.*

En Vitoria / Gasteiz, 7 de Mayo de 2004

Firmado: *Angel Elías Ortega*


*Gizarte Gaietarako Sailburuordea / Viceconsejero de Asuntos Sociales*

## **ERASKIÑA:**

“Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren” liburuxkaren edukia.

*Murua, tar Joseba Mirena*







# Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

## 1948ko ABENDUAREN 10ekoa

⑤

### ITZAURREA

Kontuan izanik munduko askatasuna, justizia eta bakea giza familiako kide guztien berezko duintasunean eta eskubide berdin eta ukaezinetan oinarritzen direla.

Kontuan izanik giza eskubideak ez ezagutzearen eta gutxiestearen ondorioz, giza kontzientziari irain egiten dioten basakeriak gertatu izan direla eta gizon-emakumeek, beldur eta gabezia orotik aske, itz egiteko askatasuna eta sinesmen-askatasuna izango dituzten munduaren etorrera aldarrikatu dela gizakiaren elburu nagusi.

Kontuan izanik ezinbestekoa dela giza eskubideak zuzenbidezko erregimen batek babestea, gizakia tirania eta zapalkuntzaren aurkako azken irtenbidea den matxinadara jo bearrean aurkitu ez dadin.

Kontuan izanik ezinbestekoa dela, baita ere, errialdeen artean arreman lagunkoiak bultzatzea.

Kontuan izanik Nazio Batuetako kide diren erriek gizakiaren oinarrizko eskubideetan, gizakiaren duintasun eta balioan eta gizonen eta emakumeen eskubideen arteko berdintasunean duten fedea tinko azaldu dutela Agirian; eta, askatasunaren ikuspegi zabalago baten barruan, gizarte aurrerakuntza sustatzeko eta bizitza-mailla jasotzeko erabakita daudela adierazi dutela.

Kontuan izanik Estatu Kideek, Nazio Batuen Erakundearekin elkarlanean, gizakiaren oinarrizko eskubide eta askatasunen begirune orokorra eta eraginkorra ziurtatzeko itza eman dutela.

Kontuan izanik emandako itz hori osotasunean betetzeko garrantzi andikoa dela eskubide eta askatasun oriek berdin ulertzea.

Batzar Nagusiak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsal au egiten du, herri eta nazio guztiek izan bearreko jomuga legez, bai norbanakoek eta bai erakundeek, Aldarrikapen onetan etengabe oinarrituta, alde batetik, eskubide eta askatasun auen begirunea bultza dezaten irakaskuntzaren eta ezkuntzaren bidez eta, bestetik, nazio maillan eta nazioarte maillan arian-arian neurriak artuz, era eraginkorrean eta orokorrean ezar daitezen ziurtatzeko, bai kide Estatuetakoko errien artean eta baita orien eskumenpean dauden lurraldeetan ere.





# GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSALA

## 1. atala

Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eto eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu bearra dute.

## 2. atala

1. Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen onetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, izkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomia mailla, jaiotza edo beste inolako gorabeeragatik.

2. Ez zaio begiratuko gaiñera, pertsona zein errialde edo lurraldetakoa den; ezta ango politikari, legeei edo nazioarteko egoerari, naiz eta erri ori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabea edo nola-alako buru-jabetasun mugak dituen.

## 3. atala


Norbanako guztiek dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea.

## 4. atala

Iñor ez da izango besteren esklabu edo uztarpeko; debekatuta dago esklabutza eta esklabuen salerosketa oro.

## 5. atala

Ezin daiteke iñor torturatu, ezta inon zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.



## 6. atala

Edozein gizon-emakumek du, nonai, lege-nortasundun dela aitor diezaio-  
ten eskubidea.

## 7. atala

Gizon-emakume guztiak berdinak dira legearen aurrean eta denek dute,  
bereizkeriarik gabe, legezko babes izateko eskubidea. Denek dute Alda-  
rrikapen au austen duen edozein bereizkeriaren aurka eta bereizkeria orren  
eragileen aurka babes berbera izateko eskubidea.

## 8. atala

Pertsona orok du Konstituzioak edo legeek gizon-emakumeei aitortzen  
dizkieten oiñarrizko eskubideak austen dituzten ekintzetatik babesteko,  
norbere errialdeko auzitegi aginpidedunetan errekurtsio eraginkorra jartze-  
ko eskubidea.

## 9. atala

Iñor ezingo da arrazoirik gabe atxilotu, preso artu edo erbesteratu.

## 10. atala

Pertsona orok eskubidea du, berdintasun osoan, auzitegi burujabe eta alder-  
dikeriarik gabean jendaurrean itz egin eta zuzentasunez entzun diezaio-  
ten, naiz bere eskubide eta bete-bearrak erabakitzeko, naiz bere aurkako salake-  
ta penalak aztertzeke.

## 11. atala

1. Delituagatik salatutakoak eskubidea du errugabetzat jo dezaten, errudun  
dela legez eta jendaurreko epaiketan frogatzen ez den bitartean. Epaiketan  
bere burua zaintzeko berme guztiak ziurtatuko zaizkio.

2. Egintzak edo bear-uzteak izandakoan, errialdeko edo nazio-arteko lege-  
riaren arabera delitu ez baziren, ezingo da iñor kondenatu. Delitua egitean  
ezargarri den zigorra baiño larriagorik ere ezingo zaio jarri.

## 12. atala

Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan eskusartzerik, ezta inoren oore edo izen onari eraso egiterik ere. Nornaik du eskusartze edo eraso orien aurka legezko babesa izateko eskubidea.

## 13. atala

1. Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzekoa.
2. Pertsona orok du edozein errialdetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere errialdera itzultzekoa.

## 14. atala

1. Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein errialdetan babesa birlatu eta izateko eskubidea.
2. Eskubide orretara ezin izango da jo delitu arruntek sortutako auzibideko egintza baten aurka, ezta Nazio Batuen elburu eta erizpideen aurkako egintzak direla-eta ere.

## 15. atala

1. Pertsona orok du erritartasuna izateko eskubidea.
2. Inori ezingo zaio arrazoirik gabe erritartasuna kendu, ezta erritartasuna aldatzeko eskubidea ukatu ere.

## 16. atala

1. Gizonek eta emakumeek, ezkontadinetik aurrera, ezkontzeko eta familia eratzeko eskubidea dute, arraza, erritartasun edo erlijioagatik inolako mugarik gabe; eta, ezkontzari dagokionez, eskubide berberak dituzte bai ezkontuta jarraituz gero eta bai ezkontza-lotura ezabatuz gero ere.
2. Ezkongaien baimen aske eta osoz ez bada, ez dago ezkontzerik.
3. Familia da gizartearen oinarri jatorra eta berezkoa, eta Estatuaren eta gizartearen babesa izateko eskubidea du.

## 17. atala

1. Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka naiz taldean.
2. Arrazoirik gabe, ez zaio iñori bere jabegoa kenduko.


## 18. atala

Pertsona orok pentsamendu-, kontzientzi eta erlijio-askatasunerako eskubidea du; eskubide orren barne da erlijio edo siñesmena aldatzeko askatasuna eta baita norbere erijioa edo siñesmena bakarka naiz taldean, jendaurrean edo pribatuan irakaskuntzaz, iardueraz, kultuz eta aginduak gordez azaltzeko askatasuna ere.

## 19. atala

Gizabanako guztiek dute eritzi eta adierazpen-askatasuna. Eskubide orrek barne artzen du erlijioa eta siñesmena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren eritziengatik iñork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta eritziak mugarik gabe eta nolanaiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa.

Ⓔ



## 20. atala

1. Nornaik du bakean biltzeko eta elkartzeko eskubidea.
2. Iñor ezingo da beartu elkarte bateko kide izatera.

## 21. atala

1. Pertsona orok du bere errialdeko gobernuan parte artzeko eskubidea, zuzenean naiz libre aukeratutako ordezkarien bitartez.
2. Pertsona orok du berdintasunez norbere errialdeko funtzio publikoan sartzeko eskubidea.
3. Erriaren borondatea da botere publikoaren agintearen oiñarria; borondate ori aldiari-aldiari egingo diren benetako auteskundeetan adieraziko da. Auteskundeok bozketara orokor eta berdinez eta isilpeko boto bidez egingo dira, edo boto askatasuna bermatzen duen beste bide batez.

## 22. atala

Pertsona orok du, gizarteko kide denez gero, gizarte-segurantza izateko eskubidea eta, errialdearen aal-eginaz eta nazioarteko laguntzaz, estatu bakoitzaren antolaketa eta baliabideak kontuan izanik, norbaakoaren duintasunerako eta nortasuna garatzeko ezinbestekoak diren ekonomi, gizarte eta kultura maillako eskubideak asetuta izatekoa.

## 23. atala

1. Pertsona orok du lan egiteko eskubidea, lana aukeratzekoa, lan baldintza bidezkoak eta egokiak izatekoa, eta langabeziaren aurkako laguntza jasotzekoa.
2. Pertsona orok du, bereizkeriarik gabe, lan beragatik lansari berbera jasotzeko eskubidea.
3. Lanean ari denak bidezko lansaria eta aski zaiona jasotzeko eskubidea du, bai bera eta bai bere familia, giza duintasunari dagokion bezala bizitzeko bestekoa. Orretarako aski ez bada lansaria, gizarteko laguntzaren bidez osatuko da.
4. Pertsona orok du, norbere interesen alde egiteko, sindikatuak eratu eta sindikatuko kide izateko eskubidea.

## 24. atala

Pertsona orori dagozkio atsedenerako eskubidea, aisiarakoa, lanaldiaren iraupen mugatua izatekoa eta aldian-aldian ordaindutako oporrak izatekoa.

## 25. atala

1. Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, mediku-sorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zaartzaroa edo bizibidea nai gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere.

2. Amek eta aurrek laguntza bereziak jasotzeko eskubidea dute. Aur guztiek, senar-emazteengandik naiz ezkontzatik kanpo jaiotakoek, gizartearen babes berbera izateko eskubidea dute.



## 26. atala

1. Pertsona orok du hezkuntza-eskubidea. Ezkuntza doainekoan izango da oinarrizko ikasketei dagokienez beintzat. Oinarrizko ikasketak egitea derri-gorrezkoa izango da; eziketa teknikoa eta lanbiderakoa, orokorra; eta denek izango dute goimailako ikasketak egiteko aukera bera, norberaren merezi-menduen arabera.

2. Ezkuntzaren elburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzea; errialde, arraza eta erlijio guztien arteko elkar-ulertze, jasankortasun eta adiskidetasunaren alde egingo du; eta Nazio Batuen iarduna bultzatuko du, bakeak iraun dezan.

3. Gurasoek leentasunezko eskubidea izango dute seme-alabei emango zaien ezkuntza mota aukeratzeko.

## 27. atala

1. Pertsona orok du eskubidea elkarteko kultur ekitaldietan aske parte artzeko, artelanez gozatzeko, eta zientzi aurrerakuntzan eta orri darizkion irabazietan parte artzeko.

2. Zientzia, literatura edo arte maillan egindako lanen egille diren pertsona guztiek dute orregatik eskubidea dagozkien interesak eta materialak babes dakizkien eskubidea.

## 28. atala

Pertsona guztiei dagokien eskubidea da, Aldarrikapen onetan azaldutako eskubide eta askatasunak era eraginkorrean garatuko dituen gizarte maillako eta nazioarteko ordena ezar dadin.

## 29. atala

1. Pertsona orok komunitatearekiko betebearrak ere baditu, komunitatea baita bere nortasuna guztiz eta era askean garatzeko toki bakarra.

2. Pertsona orok, gainontzeko erritarren eskubide eta askatasunen begirunea ziurtatzeko eta gizarte demokratiko bateko moral, ordena publiko eta ongizate orokorreko bidezko eskakizunak betetzeko legez ezar daitezen mugak baiño ez ditu izango dagozkion eskubide eta askatasunez baliatzeko orduan.

3. Eskubide eta askatasun auetaz ezingo da iñor baliatu Nazio Batuen elburu eta erizpideen aurka.



### 30. atala

Aldarrikapen onetan jasotako ezertan ezingo da ulertu Estatuari edo talde edo norbanakoren bati Aldarrikapen onetan bertan adierazitako edozein eskubide eta askatasun deuseztatzeko ekintzak edo iardunak burutzeko eskubidea ematen zaionik.









Euskeraren Erri Akademia  
Academia Popular de la Lengua Vasca  
L'Academie Populaire de la Langue Basque

---

e-mail: [aeuskerazaintza@gmail.com](mailto:aeuskerazaintza@gmail.com)  
[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)